



**HAL**  
open science

## XVIII. mendeko Gabon Kantak: Gandara eta Sor Luisa

Ariane Ensunza Aldamizetxebarria

► **To cite this version:**

Ariane Ensunza Aldamizetxebarria. XVIII. mendeko Gabon Kantak: Gandara eta Sor Luisa. 2011.  
artxibo-00698797

**HAL Id: artxibo-00698797**

**<https://artxiker.ccsd.cnrs.fr/artxibo-00698797v1>**

Preprint submitted on 17 May 2012

**HAL** is a multi-disciplinary open access archive for the deposit and dissemination of scientific research documents, whether they are published or not. The documents may come from teaching and research institutions in France or abroad, or from public or private research centers.

L'archive ouverte pluridisciplinaire **HAL**, est destinée au dépôt et à la diffusion de documents scientifiques de niveau recherche, publiés ou non, émanant des établissements d'enseignement et de recherche français ou étrangers, des laboratoires publics ou privés.

## **XVIII. mendeko Gabon Kantak:**

### **Gandara eta Sor Luisa<sup>1</sup>**

Ariane Ensunza Aldamizetxebarria

EHU/ UPV

ariane.ensunza@gmail.com

#### **0. Sarrera**

Gure lan honetan, XVIII. mendeko bi autoreren lanak izango ditugu aztergai: batetik, Sor Luisaren “Gabon Sariak”<sup>2</sup>; bestetik Sebastian Antonio de la Gandararen “Gabon Kantak”. Ahal den neurrian, bi autoreen lanek zer duten antzeko eta zer desberdin esaten saiatuko gara, baina horretan hasi aurretik, garaiko egoera historiko-politiko-ekonomiko-sozialaz argibide batzuk emango ditugu, autoreen eta beraien lanaren testuingurua hobeto uler dadin.

Idazleak bizi ziren garaiko egoeraren berri eman ostean, autore bakoitzaren inguruko datu batzuk emango ditugu, nor izan zen hobeto ulertzeko, baita egin zituen lanak ezagutzera emateko ere. Horren ostean, bi autoreen Gabon Kantak begiratuko ditugu, nori zuzenduta dauden idatzita ikertuko dugu eta Kanta bakoitzaren ezaugarriak zehazten saiatuko gara; hala nola, ze bertso mota erabiltzen duen autore bakoitzak, ze errima, ze pertsonaia, etab. aztertuko dugu eta elkarren artean edota garaiko beste autore batzuekin dituzten antzekotasunak edo desberdintasunak ere konparatuko ditugu.

#### **1. Testuingurua**

XVIII. mendean Hego Euskal Herriko literaturak goraldi nabarmena jasan zuen XVII. mendean izandako beherakadaren ostean. Ipar Euskal Herriko literaturak, aldiz, loraldiaren osteko beherakada jasan zuen. Kontrako norabidean zebiltzan, beraz, Iparraldea eta Hegoaldea.

Horrek ez du esan nahi Iparraldean idazteari utzi zitzaienik, badira eta garai hartako obrak kalitatez eta kantitatez ez hain kaxkarrak. Hala ere, ez dago ia idazle ez poeta originalik (Etxeberri Sarakoa salbu), gehiengoa lan aszetikoen itzulpenak baitira. Lafittek (1941:43), 1713an sinatutako Utrecht-eko itunaren ostean gertatutako beherakada ekonomikoari egotzi zion Iparraldeko literaturaren dekadentzia (apud.

---

1 2011-2012 ikasturtean Hizkuntzalaritza eta Euskal Filologiako masterreko Euskal Literaturako oinarriak I izeneko ikasgaiari Iñaki Aldekoarentzat egindako lana da honako hau.

2 Aurrerago ikusiko ditugu “Gabon Sariak” obraren inguruan egon diren eztabaidak.

Sarasola, 1976:51). Hala ere, Oyharçabalek (2001:11) dioenez, “ez dirudi XVII eta XVIII. mendeetan Lapurdiko ekonomian gertatu aldaketek oihartzun zuzenik izan zutela lapurterazko letra sorkuntzan”.

Horrez gain, 1789ko Frantziako Iraultzaren ondorioz, Iparraldeko euskaldunek foruak galdu zituzten eta Biarnorekin batera Pirinio Behereko departamentuan sartu zituzten Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa (1790). Gainera, [Iraultza Frantsesean](#) sortutako Konbentzioaren aurkako gerra piztu zen 1793an Frantzia eta Espainiaren artean, 1795. urtean bukatu zena.

1793an Gipuzkoako foruen arabera, Diputazioak bere aldetik boluntario konpainiak armatu zituen eta horretarako elizako ondasunak baliatu zituen. 1793an Ventura Caroren tropek Hendaia hartu zuten gipuzkoarren eta nafarren laguntzarekin, baina frantziarrek aurre egin eta Gipuzkoan sartu ziren (1794 - VII). Frantziarren inbasioak Gipuzkoako egoera politikoa okerrera eramane zuten. Euskal Herriko egoera, beraz, ez zen batere samurra izan, batez ere XVIII. mendeko bigarren erdialdean. Dena dela, Sarasolak dioenez (1976: 59), Frantziako Iraultzak ez zion aldaketa esanguratsurik ekarri marjinala zen euskal literaturari.

Nolanahi ere den, XVIII. mendearen lehen erdian, behintzat, Hegoaldeko literaturak loraldia jasan zuen Larramendiren (1729 eta 1745) lan garrantzitsuei esker, hauek euskalduntasunaren suspertzea ekartzearekin batera, literaturarako grina ere piztu baitzuten. Horrez gain, XVIII. mendearen erdialdean Euskal Herriko kultura sustatzea lortu zuen Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País (1764) (Euskal Herriaren Adiskideen Elkarte) sortu zen Peñafloidaren eskutik; izan ere 1763an aurkeztu ziren Elkartearen egitasmoak, baina hurrengo hilabeteetan mamitu ziren Bergaran. Ondoren Azkoitian, Gasteizen eta Markinan eraturiko Batzar Orokorrek sendotuta osatu zen sorrera saioa 1765ean. Halabaina, 1774an tropa frantsesak Bergarara sartzearekin batera apaiztegia suntsitu zuten eta honek elkarte desegitea ekarri zuen.

Lau arlo izan ziren Elkartetik bereziki bultzatu nahi izan zirenak “Irurac bat”, Gipuzkoa, Bizkaia eta Araba, borboitarren modernitatearen bidean jartzeko: Nekazaritza; Zientziak eta Arte Praktikoak; Industria eta Merkataritza; eta, azkenik, Politika eta Letra Ederrak. Dena dela, ilustrazioaren bidean ibili arren, ez ziren, inondik ere antiklerikalak. Horrez gain, ilustratuek teoria literarioa eta kantua beharrazkotzat jotzen zituzten eta are beharrezkoko teoria horien aplikazioa eta kantuen

libertimendua uztartuko dituen generoa: antzerkia, hain zuzen ere. Azken finean, garai hartan antzerkia denbora-pasa izateaz gain, helburu pedagogikoarekin ere erabiltzen zen, baina Peñafloredaren hitzak gogoraraziz, “*antzerkia bertuteen eskola izan dadin, eta ez bizioena*”.

Garai honetakoak dira Barrutia (1682-1759), Sor Luisa eta Franzisko Xabier Munibe (1723-1785), Peñafloredako kondea. Aresti da XVIII. mendeko euskal antzerkigintza zehatzen aztertu duena; izan ere, berak argitaratu zituen 1965ean hiru autore hauen obrak: Barrutiaren “Gabonetako ikuskizuna” (Acto para la nochebuena), Sor Luisaren “Gabon Sariak” eta Muniberen “El borracho burlado”.

Lehen esan bezala, lan honetan, goian aipatutako hiru lanetatik Sor Luisaren “Gabon Sariak” izango ditugu aztergai; izan ere, Barrutia eta Muniberen inguruko ikerketa eta azterketa sakon ugari egin dira gaur arte, baina Sor Luisaren lana, aldiz, ia oharkabean pasatu da. Horrez gain, Sebastian Antonio de la Gandararen hiru “Gabon Kantak” ere aztertuko ditugu eta, ahal den neurrian, bi autoreen lanek zer duten antzeko eta zer desberdin esaten saiatuko gara.

## **2. Gabon Kantak**

Aztergai dugun garaiko testuinguru historikoa ikusi ostean, Gabon Kantez jakin beharreko kontu batzuk azalduko ditugu jarraian.

Izenak berak iradokitzen duen bezala, Gabon edo Eguberri sasoian abesten diren kantei deritze Gabon Kantak edo Eguberri Kantak. *Bilantziko* ere deitu izan zaie, gaztelaniatik mailegatutako hitza erabilita. *Bilantziko* gaztelaniazko *villano* hitzetik dator, hain zuzen ere, eta “herritarren kantua” esan nahi du. XV. eta XVI. mendeetan Espainiako musika polifonikoan, nekazari giroko kantuetan oinarritutako obra lokala du jatorri. Hala ere, gazteaniazko bilantzikoa *zejel* izeneko arabiar bertsoetatik eratorria dela dirudi. Itun Berrian bertan jada Jesus jaio dela adierazteko Gabon Kantak bazirela aipatzen da. Manuel Lekuonak (apud. Kaltzakorta, 1999:134), erdarazko *villancico* edo *villanesca* euskaraz *artzain-kanta* deitu ohi zien: “Erri-xume kanta alegia. Erri-ezjakin kanta. Kanta oietan olerkariak –olerkaririk jakintsuenak ere– ezjakin-papera egiten du; eta bere esan-bearrak ezjakin-itxuran ditu esaten. Olerkari ez bafio artzai izaki alegia. Eta artzai batek Jesus'en jaiotzaren aurrean jelkiko lituzkean itz eta sentiera ber-berak jelki berak ere... Orixe da *Villancicoa*. Orixe da Artzai-kanta”.

J.A. Lakarraren (1982:71) arabera, XVI. mendetik XIX. mendearen parte batera arte, Espainia osoko komentu, katedral eta eliza askok ohitura zuten Gabon, Errege eta

Kontzezio egunetarako bilantzikoak agintzeko eta, horren ondorioz, genero ugaria izan da. Elizaren enkarguz osatutako bilantziko sorta hauek sarritan organo musikaz lagundurik gorde dira.

Euskarazko lehenengo Gabon Kanta XVI. mendean bertan lekukotzen da, Lazarragaren eskuizkribuan (1567) hain zuzen ere. Dena dela, XVII. mendean askoz ugariagoak dira euskarazko bilantzikoak. Hor ditugu, esate baterako, herri tradizioetik datozkigun “Marijesiak” edota S. Martinez de Otxoa arabarraren bilduman (1695) agertzen diren bilantzikoak. XVIII. mendeko bilantzikoei dagokienez, J. A. Lakarrak (1982:72, 73) ematen digu berri eta honako hauek aipatzen ditu: Segurakoa (1705), San Frantzisko elizarako Oaraveytiak musikan jarriak (1755), S. Gandarak Gernikan jarriak (1757, 1762 eta 1764), Muniberen *Gabon-Sariak* (1762)<sup>3</sup>, 1789ko Donostiako bilantzikoa (P. Urkizuk ezagutzera emana 1982an), Bilboko Santiago elizakoak (1794), Bilboko San Frantzisko elizarako aita Zabalak musikan jarriak eta Abadiñoako bilantzikoak (datatu gabe). Horiez gain, P. Urkizuk (2000) M. Oruñarenak (1769 eta 1772), A. Etxeberriarena (1779) eta 1783ko “Gloria, gloria” anonimoa aipatzen ditu (apud. *LTH*).

Hala ere, Lakarrak (1982:72.or-ko 4. oinoharrean) aipatzen duenez, Gabon Kantak ez dira generotzat behar bezala bereiztu eta honen arrazoia dateke Arestik *Teatro Zaarra* argitaratu zuenetik *teatro zaharra* aurkitzeko nahia. “Hola uler daiteke *Gavon sariak* edota Gandararen 1764ko Gabon kanta teatrotzat jotzea”, diosku. P. Urkizuk (2009) ere bat egiten du Lakarraren iritziarekin, hau da, Gandararen obra horiek ez direla antzerkiak, baizik eta bilantzikoak. Dena dela, pieza liturgiko horiek antzerkiari dagozkion zenbait osagai dituztela onartzen du: abestu egiten dira, elkarrizketa eran antolatzen dira, mugimendu eszenikoa dute... Hori dela eta, genero mugak bereizteko zailtasuna aipatzen du.

Gaiari dagokionez, XX. mendera arte Gabon Kantek Jesus Nazaretekoaren jaiotza abesten zuten, baita honen inguruko gertakariak ere, hala nola, Errege Magoen etorrera edota artzainen adorazioa. Nolanahi ere den, XX. mendetik aurrera beste gai batzuk ere hasi ziren jorratzen, esate baterako, eguberrietako ospakizuna, familia eta lagun giroa, eta beste hainbat elementu profano. Ansorenaren (1983) arabera, herri

---

3

Baina Sor Luisak izenpetutakoa.

literaturan aditu direnak Eguberri zikloko kantuen artean lau une bereizten dituzte: San Nikolas egunekoa, Gabon Gauekoa, Gabon Zaharrekoa eta Erregeetakoa (apud. *LTH*).

Bestalde, *Literatur Terminoen Hiztegiaren arabera (LTH)*, Euskal Herrian herrietako gazteek etxerik etxe eskean joateko erabiltzen zuten errepertorioa osatzen dute Eguberri Kantuek:

Garai batean, bereziki mutilek osaturiko taldeek euren gain hartzen zituzten gizartearen erakuntzarako ardua asko eta asko (herriko edo auzoko ospakizunen antolakuntza, biztanleen moralaren kontrol sistemak, eta abar). Baina, baliabide ekonomikorik ez zeukatenez, errondan irteten ziren eta eskean egiten zuten. Era berean, ezkongai zeuden etxeetako neskei aipamen bereziak egiteko parada hartzen zuten erronda horietan. Eskearen adierazpen anitz kausitzen da, ondorioz, batez ere kanpokoan pobretasuna eta etxekoan ugaritasuna, edertasuna eta eskuzabaltasuna goretsiz (ala bertakoen zuhurkeria gaitzetsiz...)

Hori dela eta, Eguberri kantuak eskeko koplak eta kantu ugarik osatzen dituzte, esate baterako L. Ansorenak (1983) aipatzen dituen hauek: “San Nikolas txikia”, “Oles eta oles”, Urte Zaharreko “Dios te Salve” eta “Deo gratias, buena gente” formulak darabiltzatenak, Nafarroako Burunda aldeko “Ur goiena, ur barrena” edota “Urte barri, barri”. Modu berean, lehen esan bezala, badira eguberri ospakizunetako jate handi eta gehiegikerien aipamena egiten duten kantuak, hala nola, “Dringilindron, gaur Gabon”, “Ez dauko bexiguak”. Hala ere, tradizio paganoari lotutako elementuak dituzten Gabon Kantak ugariak izanik ere, elizaren ospakuntzei estuki lotutako hainbat kantu ere badira euskal Eguberrietako kantutegian. Honela dio L. Ansorenak (1983):

horietako zenbaitek euskaraz sortuak dirudite; beste hainbat, aldiz, inguruko erdaretatik hartu eta moldatuak izan daitezke, hala nola, Iparraldean hain aspalditik hedaturik dauden *Oi Bethleem!* (frantsesez eta biarnesez ezagutzen dena) edo *Airerik ederrenetan* kantu miresgarri ederrak.

Egiturari dagokionez, honela dio *LTH*-ak arabiar *zejel*-ez:

metrika aldetik gehienetan sei edo zortzi silabako lerroez osatua zen eta egitura jakina izaten zuen, sarrerako hiruzpalau lerroko ahapaldi baten ostean (*estribillo*) beste ahapaldi batzuk zetozen (*mudanza*) eta horien ondoren, *vuelta* izeneko ahapaldi labur bat, hasierakoarekin lotu eta hura osorik nahiz zatika errepikatzen zuena. Lehen errenazimentu garaietatik erabili da gaztelaniaz, XV. mendeko kantutegietan egitura hori garatua zen eta mendeetan zehar idazle ezagun askok egin izan dituzte gai erlijiosoz nahiz profanoz: Jorge de Montemayor, Gil Vicente, Juan del Encina, Santa Teresa, Gongora, Lope, Cervantes, J. R. Jimenez...

Halaber, ez da adibiderik falta euskal literaturan. Otaegik dioenez, Lazarragaren Gabon Kantak gaztelaniazko bilantzikoen egitura eta metrika ezaugarriak betetzen ditu, garaiko beste idazle euskaldun batzuek ez bezala. L. Ansorenak (1983) ere aipatzen du bilantzikoetan maiz, errepika, bihurki, mudantza eta beste lotura teknika batzuk azaltzen direla eta honen adibide gisa Barrutiaren *Gabonetako ikuskizuna* ematen du.

Bestalde, sarri askotan bilantzikoetan gaztelania eta euskara nahasian erabiltzeko ohitura egon da, *entsalada* gisakoak eginez. Honen adibide ditugu, aipatutako Lazarragarena eta S. Martinez de Otxoa arabarraren bilduman (1695) agertzen diren bilantzikoak, baita gaztelaniazko bilantziko erlijiosoa maila gorenera eraman zuen Sor Juana Ines de la Cruz (1651-1695) mexikarrarenak ere.

### 3. Autoreak

Sor Luisaren eta Sebastian Antonio de la Gandararen lanak zein testuingurutan kokatzen diren argitu ostean, atal honetan bi autoreen inguruko zenbait datu emango ditugu. Horrela, hobeto jakingo dugu autore bakoitza nor izan zen eta hauek egindako lanak ere emango ditugu ezagutzera.

#### 3.1. Gandara

Sebastian Antonio de la Gandara XVIII. mendeko idazle gernikarra izan zen. Jose Antonio Arana Martijaren arabera (1984:505), 1700 urtearen inguruan jaio zen eta 1780 inguruan hil. Gernikako Andra Maria Parrokiako apaiz izan zen 1749ra arte eta zazpi urtez Madrilen egon bazen ere (1749-1756), 1757an Gernikara itzuli zen. Bere bizitzan zehar gaztelaniazko lan batzuek gain, euskarazko 6 lan idatzi zituen. Gandararen euskarazko Gabon Kantan artean, 1764ko *Gabon-kanta* izan da gehien aipatu eta aztertu dena. Dena dela, beste bi bilantziko ere idatzi zituen, berez gehien aipaturiko hori baino antzinagokoak izan arren, beranduago aurkitu zirenak. Hona hemen Gandararen euskal lanen zerrenda(Arana Martija, 1984: 506-507):

- 1) 1757→ *Gabon Canta del año de 1757* que yo DN. Sebastián Antonio de la Gándara, Protonot. Ap.º Presbítero Beneficiado de esta villa de Guernica compuse en quince villancicos, y por su Bordoncillo se intitula *el FARARIRA*.
- 2) 1762→ *Gabon Canta Guernicacoa. Hurte 1762*.
- 3) 1764→ *Guernicaco Gabon Cante. Hurte 1764: Muxhil, da Vizcaitar baten artean*
- 4) 1768→ *Ama Maitegarriari Zortzico. Cecellaren 3. Hurte 1768*.

- 5) 1768 → *Ama Maitegarriari bere jaiozan. Cecellaren 14garrenean. Urte 1768.*  
 6) D.g. → *Ardaoaren ganian.*

Ikus daitekeenez, lehenengo hirurak Gabon Kantak dira, artzainen adorazioa kontatzen dutenak. 4.a eta 5.a, berriz, kanta erlijioso edo elizakoak dira, “Ama maitegarriari” edo Ama Birjinari egindako laudorioak; azkena, ostera, ardoari egindakoa da. Azken hau, data zehatzik ez duena, bukatu gabe utzi zuen Gandarak eta, Arana Martijak (1984:510) dioenez, “puntuak ondo zaindu gabe” egina dago (-A-B-B-B, -A-A-B-B, -A-A-B...). Hori dela eta, gure lanean albo batera utziko dugu *Ardaoaren ganian* egindako kanta. Bestalde, Gabon Kantak ditugunez aztergai, lehenengo hirurak soilik aztertuko ditugu, beste biak kanta erlijiosoak badira ere, ez baitira Gabon Kantak.

### 3.2. Sor Luisa

Sor Luisa beraren inguruan ez dago datu gehiegirik euskal literaturako liburuetan. Badakigu XVIII. mendeko pertsonaia izan zela, beraz, Gandararen garaikide, eta 1762an Azkoitiko elizan kantatzeko “Gabon-Sariak” lanaren egile gisa ageri dela; izen osoa: *Gavon-sariac edo aurtengo gavonetan Ascoytico eleiza nagusian cantutuco diran Gavon-cantac edo otsaldiac* dauka. Sor Luisaren lan honi buruzko informazio nagusia Aita Joakin Aspiatzu jesuitak eman zuen 1923an Donezteben egindako hitzaldietan<sup>4</sup>. Honako hau dio bertan Aspiatzuk (1923:129):

Azkoiti'ko Misericordiin bizi zan orain ia befegun urte Luisa zeritzaion lekaimetxo bat. Noik ez ezagutu Azkoiti'n Luisa mojatxua?

Aipu honen arabera, badirudi mundu guztiak ezagutzen zuela Luisa, baina inon ere ez dago bere biografiako daturik. Izan ere, batzuen ustez Sor Luisa izenaren atzean Munibe Peñafloidako kondea legoke; beste batzuen ustetan, ostera, Larramendi; baina badira Sor Luisaren egiletzaren aldeko iritziak ere.

Hona hemen Luis Villasantek (1979:124) autoretzaren zalantzaz dioena:

En Azkoitia (Gipuzkoa) –si es que en aquella fecha había imprenta en Azcoitia, lo que es dudoso–, en 1762, se publicó un folleto con el título *Gavon-sariac*. Es una especie de opereta pastoril con versos para ser cantados en la iglesia parroquial de Azkoitia en la Nochebuena. Como autora figura una tal LUISA DE LA MISERICORDIA (es de notar que el folleto se imprimió también en la misma Misericordia de Azkoitia). El P. J. I. Arana reprodujo nuevamente estos versos en la revista *Euskalerría*.

---

4

Ondoren Gabriel Arestik (1965) argitaratu zituen Barrutia, Sor Luisa eta Muniberen lanak “Teatro-Zaarra” bilduman.



Manterola, en la misma revista, sostuvo que el nombre de Luisa de la Misericordia podía ser un seudónimo bajo el cual se oculta el CONDE DE PEÑAFLORES. Don Manuel Lecuona recientemente los ha atribuido al P. Larramendi. El P. Arana, en cambio, defendió que, como reza el texto impreso, son de alguna mujer de la dicha Casa de Misericordia. Nuevamente ha sido reimpresa esta preciosa composición por don Manuel Lecuona en una conferencia consagrada al tema navideño en la literatura vasca.

Beraz, “Gabon-Sariak” izenez ezagutzen den lanaren autoretza Sor Luisari egozten diotenen artean J.I. Arana daukagu. Ikusten denez, Aita Aranak jaramon egiten die Sor Luisaren izenpean idatzita dauden hitzei eta ez du zalantzan jartzen bere autoretza; izan ere, honako hau dio Sor Luisak bere lanean (apud. Aspiatzu 1923:129):

Jaquin ere naico dezuen orzaz valiatu naizan Coplaac ta veren soñua ateratzeco, ta jaquin gura gueieguicho bada ere, ez dizuet ecer ijildu nai. Copraric gueienac nire burucoac dira; ta bost gaubela ta icerdi gozo costa bazaitzitere, ondo empleatutzat ematen ditut diranac: Eguia da (ez diot iñori ecer quendu nai) Martin beltz guisagajoac messederic asco eguiñic lagun eguinda batez ere Seguidilla ta araco Aria edo Copra aundi aetan bada secula alacoric nola ecusi ere ez nevan, ecin asmatu nevan.

Beraz, Sor Luisak berak aitortzen du laguntza izan duela kantak egiterako orduan. Bestalde, Manuel Lekuonaren iritzia genuke, honek Larramendiri egozten baitio kantaren egiletza. Honela azaltzen eta defendatzen du Lekuonak (1985:30) bere hipotesia:

Nik, egia esan, Loyola'ko eskua ikusten det argi ta garbi kantu polit oietan. Loyola'ko esku jakintsua. Eta esku ezagun-ezagun bat gañera. A. Larramendi'ren esku bipil ta alai, eta maltxur ta desairetsua. [...] Zenbait kantetan zerbait eliz-jakinduri ikusten zualako, zeritzaion A. Arana'ri, Loyola'ko Aitaren batzuek otezebiltzan 'Gabon-sari' aien saltsa goxo<sup>5</sup> artan. Egia da olako jakinduria dariona liburutxuak alde guztietatik [...]. Beraz, Itzaurrearen egillea A. Larramendi bada, A. Larramendi'k berak izan bear du liburu guztiaren egille [...]. Zergatik ezartzen ta egozten dion, ba, bere lana, zalako Luisa Misericordiakoari? – Berak esango liguke ederkitxo ori ere... Alako *inkisizioa* egiten bide-zuten urte aietan, praideek praideen kontra idaz-lan kontuan... A. andoaindar berak esaten zuanez, askok eta askok – praide jendeak, alegia (A. Isla batek, adibidez, bere *Fray Gerundio'rekin*<sup>6</sup>)-, beren lanak, bearrik bazuten, ezizenez,

5

[sic] Testuan *goxp* ageri da

6

[sic] Testuan *Fray Gerundio'rekiii*

8

pseudonimoz izenpetzeko moda artu zuten. Eta bestalde, Azkoitia'ri dagokionez<sup>7</sup>, gañera, alako "andra famosa" izango zan orduko gure "Misericordiako Luisa"... aren izena pseudonimo ta babes-izentzat artzeko aukera-aukerakoa izango bait-zan... Bañan –ori ere bai– Manterola'k susmo zuan bezela, saltsa gozo guzti artan Peñafiorida Kondea etzala urruti ibilliko. Liburuaren argitalte-kontuan batez ere. Mezenas antzo.”

Gillermo Diaz-Plaja (1972:95) ere iritzi berekoa da, hau da, Sor Luisa izenaren azpian elizgizon edo jesuita bat legokeela, seguraski Larramendi. Hona hemen bere hitzak:

El año 1762 se publicaba en Azkoitia un curioso librito con título GABON-SARIAK, figura como autora Sor Luisa, cuya personalidad aún no se ha identificado. En el prólogo dice Sor Luisa (Monja de la Misericordia) que el año pasado La Cada recibió muchos aguinaldos de los bienhechores, por lo que en el presente ella ha querido tomarles la delantera preparandoles el librito y ofrecerles así un aguinaldo. Aunque en el prólogo afirma la tal Sor Luisa ser ella la autora, se sospecha con fundamento que algún eclesiástico o jesuita (probablemente Larramendi) fuera el verdadero autor. Suponen demasiada erudición bíblica, cultura y conocimiento del mundo para que pudiera hacerlos una monja de hospital con la ayuda de "Martin beltz" el escobero.

Berak ematen duen arrazoi nagusiena da ospitaleko monja batek ezin zezakeela gisa horretako lanik idatzi, bibliaren inguruko jakintza ikaragarria izatea eskatzeaz gain, mundua eta kulturarekiko ezagutza handia ere eskatzen zuelako lan horrek.

Iritziak iritzi, hedatuena eta gaurkotuena Sor Luisa izenaren azpian Munibe Peñafioridako kondea ezkutatzen dela defendatzen duena da. Iritzi horren aldekoak ditugu Koldo Mitxelena, Iñaki Aldekoa eta Jon Kortazar, besteak beste. Horrela dio Mitxelenak (1960:105):

Además, según una antigua tradición que parece a todas luces bien fundada, es el mismo Munibe quien se ocultó bajo el extraño pseudónimo de sor María [sic?] de la Misericordia al publicar los *Gavon-Sariac* o villancicos que iban a cantarse en la iglesia de Azcoitia el año 1762. Son una inspirada paráfrasis en jugoso language de la égloga cuarta de Virgilio, de un bucolismo encantador.

Horrela, berriz, Aldekoak (2008:92):

---

7

[sic] Testuan *dagokipnez*

9

Peñafloridak *Gavon sariac* ere idatzi zuen –artzain-opereta moduko bat, Gabon gauean Azkoitiko parrokiaren kantatua izateko 1762an sortua– eta opera komiko bat gaztelaniaz eta euskaraz, Bergaran 1764an antzetzua eta urte horretan bertan argitaratua, *El borracho burlado*.

Eta horrela Kortazarrek (1997:106):

Real Sociedad Vascongada de Amigos del País” sortu zuenak bi lan txiki utzi zituen euskaraz. Bata, *Gabon sariac*, izengoitiarekin argitaratu zen eta XVIII. mendetik aurrera Euskal Herri osoan hedatuko den Eguberri kanten tradizioan sartzen da.

Nolanahi ere den, eztabaida argituta geratu zen 1966an Telletxea-Idigorasek eman zuen berriari esker. Izan ere, Larramendik Gandara gernikarrari 1763an idatzitako gutun baten berri eman zuen Idigorasek; bertan, *Gavon-Sariac-en* egiletza Peñafloridari egozten zion Larramendik. Hona hemen Idigorasen aipamena:

Los Gabon-kantak, publicados en Azkoitia en 1762 bajo el pseudónimo de ‘Luisa de la Misericordia’. En correspondencia al envío de Gándara, Larramendi le mandó los de Azkoitia, con mención expresa del autor de su letra y música: el Conde de Peñaflorida. Las discusiones habidas hasta ahora acerca del autor de estas coplas, se aclaran definitivamente mediante el refrendo de personaje tan avisado y próximo a los hechos, como Larramendi.

Beraz, Gandarak bere Gabon Kantak bidali zizkion Larramendiri eta Larramendik bueltan Sor Luisarenak berari. Hona hemen Larramendik bidalitako gutunaren parte bat:

Ordaña bialtzen dizut Azcoitian aurtan cantatu diranac, musica quihcora batean, Peñafloridaco Condeac eguin dituenac, eta berac musican paratu dituenac.

Badirudi, beraz, Larramendiren gutun honekin dena argituta utzi zuela Idigorasek eta Peñaflorida bera izan zela “Gavon-sariac” idatzi zuena.

Xabier Maria de Munibe e Idiakez, Peñafloridako VIII. Kondea, Azkoitian jaio zen 1723.urtean eta 1785ean hil zen Bergaran. Azkoitiko jesuitekin egin zituen lehen ikasketak eta, ondoren, zientzia ikasketak egin zituen Okzitaniar. Besteak beste, Azkoitiko Zalduntxoan (1764) eta Real Sociedad Bascongada de Amigos del País-en (1764) (Euskal Herriaren Adiskideen Elkartearen) sortzaileetarikoa izateagatik da

ezaguna. Letretako zein zientzietako ikerketak egin zituen eta Ilustrazioaren aitzindari izan zen Hego Euskal Herrian. Elkarteko kide guztien artean bera izan zen letren inguruko lan teoriko nagusia egin zuena, bai euskaraz, bai gaztelaniaz. Euskaraz, besteak beste, zarzuela erako komedia bat idatzi zuen, *El borracho burlado* (1764) izenekoa eta Azkoitian antzeztu zena.

### 3. Idazlanak

Eztabaidak alde batera utzita, bi autoreen Gabon Kantak aztertuko ditugu jarraian.

#### 3.1. Gandara

Goian aipatu dugunez, Gandarak Gabon Kanta bat baino gehiago idatzi zituen; horietan lehena, *1757ko Gabon Kanta edo FARARIRA* izenburuduna da. Arana Martijak (1976:96) dioenez, bi zutabetan idatzia dator, eskuizkribuko lehenengo orrialdean hiru ahapaldi daude idatzita eta launa ahapaldi hurrengo orrialdeetan; guztira 15. Gaiari dagokionez, artzainen adorazioaren ingurukoa dela diosku eta, beraz, herri poesiatik edo Marijesietatik urruntzen dela. Hasierako ahapaldietan sarrera txiki bat egiten da, zorientasun egoeraren berri emateko, hau da, gero kontatuko duenak sortzen duen sentimendu alaia adierazteko. Zorientasun hori naturako elementuekin adierazten du, hala nola, eguzkia bero dago, izarrak gira bira dabilta, arbolak txaloka eta mendiak saltoka. Tartean aingerua ere agertu da, jesusen jaiotzaren berri ematera. Hona hemen lehenengo ahapaldia, diogunaren lekuko:

*Gau aren manea,  
ilunic  
bapere baguea  
dacust nic  
guerizac urrundu  
onec laster ditu.  
Fararira  
izan gustiac dabilz  
gira bira.*

Sarrerako lau ahapaldien ostean, hiru ahapalditan (5-7) azalduko da artzainak Belenerantza doazela aingeruak esandakoak egia direla ikustera, baina badaezpada ez dira esku hutsik joango, lau bildots, esnea, gazta eta ardoa eramango dituzte. Hurrengo ahapaldietan, Belenera helduko dira (8), umea ikusiko dute (9), agurtu egingo dute (9) eta hau agurtu ostean Birjina (10) eta Jose (11) ere agurtuko dituzte. Ondoren opariak

emango dizkiete (12 eta 13), Ama Birjina adoratuko dute (14) eta, azkenik, agurtu egingo dira (15). Honako hau dio Kaltzakortak (1999:133):

egitura argikoa da, beraz. Lehen zatia aingeruen agerrera eta mirariak: arbolak txaloka, mendiak saltoka, buruak loka. Bigarrenik, Belengo estalpean daudenei agurra, eta azkenik, opari-eskaintza.

Goian emandako sarrerako ahapaldian ikusten dugun egitura bera errepikatzen da kanta osoan zehar: bederatzi lerroz eratutako ahapaldiak eta zazpigarrena beti da *Fararira*. Neurriari dagokionez, 1, 3, 5 eta 6 puntuek seina silaba dituzte gehienetan; 2 eta 4 puntuek hiruna; 7 eta 9 puntuek launa; eta 8. puntuak zazpi (636366474). Ahapaldi guztiak ez dira egokitzen neurriari buruz aipatu dugun joera nagusi honetara; izan ere, 2. ahapaldiak lerro bat gehiago dauka. Lerro bat gehiago izate honek, ahapaldiaren silaba kopuruari ere eragiten dio, 1. lerroa bost silabaduna baita (eta ezin inondik sei silaba atara) eta 2.a silaba bakarrekoa, ohikoena sei eta hiru silabaduna izatea denean gainontzeko kantako ahapaldietan. Hala ere, kontuan izanik lehenengo bi lerro hauen artean sei silaba konta daitezkeela, baliteke desberdintasuna grafikoa soilik izatea, hau da, ezagutzen ez dugun arrazoi bategatik 2. ahapaldian sei silabadun 1. lerroa bi lerrotan eman du bakarrean eman beharrean:  $5 + 1 = 6$ . Honek ahapaldiaren errimari ere eragiten dio, lerro bat gehiago izanik, 1. lerroa errimatik aske geratzen delako.<sup>8</sup> Hala ere, lehen esandakoa kontuan izanik eta, beraz, lehenengo bi lerroak bakarrean bilduz, esan daiteke ez dela lerro askea, 2. lerroak (besteetan 1. litzatekeenak) 4. arekin egiten baitu errima.

Gainontzeko ahapaldietan, ostera, bertso-lerro guztiak dira puntudunak, 8.a salbu, lerro askea dena beti. Oro har, 6a,3b,6a,3b,6c,6c,4d,7-,4d egitura du kantak: 1. lerroak 3. arekin egiten du errima; 2.ak 4. arekin; eta 7.ak 9. arekin: bat bai, bat ez. 5.ak, ostera, 6. arekin egiten du errima. Bestela esanda, *serventesio* bat (abab), Bestela esanda, *serventesio* bat (abab), *pareado* edo lerro bikoitz bat (cc) eta errimadun bi lerro tartean lerro aske bat dutena ditugu.

Hau ikusita, esan daiteke lerroen neurriak bat datozela lerroen errimekin, hau da, silaba kopuru bera duten lerroek elkarren artean egiten dutela errima eta, horregatik, 8. Lerroak bakarrik izanik zazpi silaba, ez du beste ezeinekin errimarik.<sup>9</sup> baina kasu

8

Kanta honetan badira antzeko arazo gehiago. Esate baterako, 5. ahapaldiko *bervea eguiaz betea* bertsoa 6.na izanik, 6 silaba izatea tokatzen zaio, baina kontatzen den moduaren arabera, 9 silabaraino izan ditzake (baita 5, 7 edo 8 ere). Bestalde, 6. ahapaldiko 9. bertsoak 4 silaba izan beharrean 5 dauzka, nahitaez (*bi lauxhe dira*), *lau* jarrita konpon zezakeenean.

9

batzuetan ez dago ondo lortua: *urrundu: ditu, oñac: lagunoc*; beste ahapaldi batzuetan bi lerro hauek ez dute errimarik: *gustizco: betea*. Beste ahapaldi batzuetan, 5.a kasuko, errima ez da batere errespetatzen. 1. eta 3. puntuak eta 7. Eta 9.ak soilik egiten dute errima. Hona hemen ahapaldi hori:

*Arin Belenera  
goazan:  
beguiz ecustera  
eguin dan gustizco  
bervea eguiaz betea  
Fararira.  
osteranzeco berbac  
utsac dira.*

Halaber, sarritan *Fararira* ‘*dira*’ aditz laguntzailearekin errimatzen du, 15etik 5 kasutan eta 15etik 7 kasutan *-ra* hori ablatiboaren atzizkia da. Beraz, esan daiteke Gandarak egindako kanta hau ez dela oso landua errimari dagokionez, behintzat (eta, ikusi dugunez, neurria ere hala-holakoa da).

Esan gabe doa, 9. ahapaldian aldaketa txiki bat dagoela, artzainek jesus umea agurtzen duten ahapaldian, hain zuzen ere. Ahapaldi honetan, ez ditugu *serventesio* bat eta lerro bikoiti bat; horren ordez, hiru lerro bikoitz ditugu (aa, bb, cc) eta, noski, errimadun bi lerroen artean tartekatutako lerro aske bat dago. Bestalde, lerroen neurria ere aldatu egiten da errimarekin batera: 663366476. Horrela, 6a,6a,3b,3b,6c,6c,4d,7-,4d egitura dauka ahapaldiak. Ziurrenik ahapaldi honi garrantzia erantsi nahi izan dio autoreak aldaketa txiki honekin.

Gabon Kanta honen gaia, esan bezala, artzainen adorazioa denez, artzainak ageri zaizkigu kantan. 7. ahapaldian aditzera ematen denez, artzain hauek hiru dira (errege magoak bezala, bide batez): Perico, esnea daramana opari gisa; Joanico, gazta daramana; eta Anchon, ardoa daramana. Artzainen izenei dagokienez, ez dugu paralelorik aurkitu Biblian, beraz, autoreak berak asmatuak dirateke. Dena dela, Kaltzakortak (1999:137) dioenez, garai bateko artzainen herri-izenak dira hauek, antzeko beste kanta batzuetan gertatzen den bezala.

Bestalde, artzainok mesfidati ageri dira, 5. ahapaldian esaten baitute ez dutela sinesten hitzik baldin eta ez badute beraien begiz ikusten. Alabaina, eskuzabal eta apal ageri dira, ez baitira esku hutsik joango Belenera, “*dodaz eroango/ aldean/ arrandun lau bildots*”, Perikok esnea, Joanikok gazta eta Antxonek ardoa eramango dutelako. Apalak direla diogu, opariak ematerakoan barkamena eskatzen dutelako gutxi delakoan

---

Hala ere, 1-3 bertsoek ez dute errima egiten 5-6 bertsoekin, nahiz eta neurri bera izan.

dakarrena (*Ain guichiagaiti/ parcatu*) eta gehiago dutenean bueltan itzuliko direla haiek ekartzera zin egiten dutelako eta, horrez gain, dakartena hobe izatea nahiko luketelako (*Nai guenduzan obeac/ albalira*).

Artzainez gain, aingeruak, Jesus umea, Ama Birjina eta Jose ('Josepe') pertsonaiak ageri zaizkigu. Aingeruez ez da xehetasun handirik ematen, artzainei Jesus jaio denaren berri ematen dietenak dira eta *angueruac hirraldi gura dira*, baina ez dugu ulertzerik zer den 'hirraldi' hori, ez baitugu *OEH*-an aurkitu honen esanahirik. Ama Birjinari dagokionez, bere ontasuna aurpegian igartzen zaiola aipatzen da. Jesus 'oyaldua' ageri zaigu, eta denek adoratzen dute, berak ekarri baitu bakea mundura. Jose, bestalde, pozik ageri da bere andrearekin eta umearekin, baita aingeruen artean dagoelako ere.

Kaltzakortak (1999:134) dioenez, "autore batek gabon-kanta bat bere baitarik asmatzen duenean, artzainen arteko elkarrizketa pipertsuen bidez egin ohi du teatralitate edo antzerkitasunez horniturik", beraz, Gandararen Gabon Kanta honi antzerkitasun puntu bat ikusten dio parte honetan eta antzerkitasun hau omen da bizitasuna ez eze bizkortasuna eta herrikotasuna ematen diona kantari. Herrikotasuna batez ere artzainen arteko elkarrizketari esker lortzen dela diosku (1999:136), baita garai hartan erabiltzen ziren pertsona izenak ezarriz artzainei ere. Elkarrizketetan ohikoena aginduak eta galderak agertzea da; Gandararen kasuan, artzainen arteko elkarrizketan. Hona hemen adibidea:

*Eznea Perico,*  
*arzazu*  
*gastaea, Joanico,*  
*ez aztu.*  
*Ardaoagaz, Anchon*  
*contu pichiruon*  
*Fararira*  
*Presente eguin eah*  
*Zast hurira.*

Kaltzakortaren (1999:133) arabera, garai bateko Gabon Kanta batzuetan, eta garai horiek XVIII. mendea eta aurreragokoak izan daitezke, antzezte-egitura bat zaintzen zen. Zehatzago esanez, gabon-antzerki kantatuetan, zein ttiki edo ez hain txikietan (Barrutiarena kasu), ematen zen ordena bat bera izango zen, kasu gehienetan. Berak dioenez, Gandararen *Fararira* honetan ere badago amaiera gisako bat, Belengo estalpeko ei ezezik, entzuleei ere zuzentzen bide zaiena: *Adio gustiay/ adio/ ecer*

*albaguinai/ balio:/ Euquico gozuez/ egun eta gauez/ Fararira/ Gustiz prest etorteco/ ceuen deira.*

Egia da amaiera horrekin artzainak Belengo estalpekoak agurtzen dituztela, baina gure iritziz, ez dago hain garbi entzuleei ere zuzentzen zaiela. Horregatik, bada, Kaltzarkotaren iritziarekin erdizka gatoz bat; izan ere, garai hartako antzerkiek seguruenik denek izango zuten egitura antzekoa: sarrera, kontaketa eta agurra.

Azkenik, Kaltzakorta (1999) jarraituz, Gandarak kanta honetan koplak zaharretan erabili ohi den teknika bat aipatu nahi genuke. Hala nola, zenbakien erabilera: *lau bildost, bi ta bi lauxhe dira*, etab. Dena dela, Kaltzakortak (1999:137) dioskunez, Gandarak “herri-literatura eta literatura landuak edo kultua uztartzen ditu oreka eder batean”.

Gandarak idatzitako bigarren Gabon Kantari ekingo diogu jarraian, *Gabon Canta Guernicacoa. Hurte 1762*. deitu duguna, hain zuzen ere; izan ere, kantak ez dauka bestelako izenbururik. J.A. Lakarrak Madrileko Historia Akademian topatu zuen Gandararen Gabon Kanta hau eta berak argitaratu eta aztertu du. Adolfo Arejitak (1982) Gabon Kanta honi buruzko azterketan dioenez, Aita Larramendik Gandarari bueltan idatzitako gutun batean zorionak eman zizkion: “ain daude ederrac, gozoac, quilicorrac...”. Eta, nola ez, Gandarak bihotzez eskertu zion maisuari hain haren iritzia: “Ontzatuten deustazula jakitea da nire atsegin betea...”. Hona hemen kanta honen lehen bi ahapaldiak:

*Adanen humeak nequez  
dempora lengoetan,  
buztarria cerabilen  
euren sorbaldaetan.  
Azan vicitza, Garratza;  
da beragaz contu latza.*

*Euscarichua.*

*Gaur gagozan pozturic,  
nola nai.  
Hegira!  
Baice bai,  
begira  
Lioia bildosturic.*

Ikus daitekeenez, kontrako bi egoera agertzen dira ahapaldiotan. Hasteko, lehengo garaietako bizimodu zail, *garrantz* eta *latza* azpimarratzen dira eta ondorengo ahapaldian garai hori iragan dela esaten da, orain sasoi ona datorrela, lehoia bildostu



egin baita; izan ere, Jesus jaio da, salbazioa heldu da. Gero datozen ahapaldietan, aingeruen berri ematea kontatuko da (2), ondoren Belengo ikuspegia emango da, umearen deskribapena eginez (3-6) eta bide batez Ama Birjinaren goraipamena egingo da (5), jaiotzak munduan sortu duen poza azpimarratuko da ondoren (7 eta 8) eta, azkenik, Ama Birjinari errukia eta babeska eskatuko zaizkio (9 eta 10). Beraz, ikus daitekeenez, Gabon Kanta honen gaia ere artzainen adorazioa da. Dena dela, artzainak ez dira modu argi batean agertzen kanta honetan. Badirudi pozaren pozaz kantatzeko gogoz agertzen diren *Gaintza*, *Carpio* eta *Pio* direla artzainak, baina, esan bezala, ez da argi geratzen, nahiz eta Kaltzakortak (1999:136) argi dagoela esan.

Oro har, kanta hau 10 ahapaldiz eta *euscaritxu* edo errepika batez dago osaturik. Ahapaldi bakoitzak seina lerro ditu, baita errepikak ere. Lerroen neurriari dagokionez, (errepikan salbu) bakoitiek zortzina silaba dituzte eta bikoitiek, aldiz, zazpina, salbu eta 6. lerroak, honek ere zortzi baititu: 878788. Errimari dagokionez, lerro bikoitiek elkarrekin egiten dute errima, baina bakoitiak askeak dira, errima gabekoak (bertsolaritzan bezala). Hala ere, azken lerro bakoitiak (5.ak) bere ostean datorren lerro bikoitiarekin (6.arekin) errima egiten du, beraz, elkarren jarraian dauden zortzina silabako lerroak lotuta daude elkarrekin. Honela, bada, hau dateke kanta honen egitura: -8, a7, -8, a7, b8, b8. Bestela esanda, *seguidilla* bat (-a-a) eta lerro bikoiti bat (bb) ditugu. Kanta honetan, aurrekoan ez bezala, ez dago salbuespenik; ahapaldi guztiak sartzen dira eskema honetan. Gandarak bigarren kanta hau gehiago landu zuen inpresioa ematen du.

Bestalde, errepikako lehenengo eta azkeneko lerroek zazpina silaba dituzte eta gainontzekoek, aldiz, hiruna silaba. Bestalde, lehenengo eta azkeneko lerroek errima egiten dute beraien artean; baita lerro bakoitiek beraien artean eta bikoitiek beraien artean ere. Beraz, hau dateke errepikaren egitura: a7, b3, c3, b3, c3, a7. Hori dela eta esan daiteke, aurreko kantan bezala, lerroen neurriak bat datozela lerroen errimekin, hau da, silaba kopuru bera duten lerroek elkarren artean egiten dutela errima bai errepikan bai gainontzeko ahapaldietan ere.

Kanta honetan agertzen diren pertsonaia nagusiak Jesus eta Ama Birjina dira. Jesus, bera bi modutara izendatuta agertzen zaigu: “Judako Lehoi” gisa eta “bildots” gisa. Biblian kontatzen diren profezien arabera, *lehengo garaiko* munduaren gogorkeria eta krudelkeriatik gizakiak salbatzeko jaioko zen askatzailea litzateke “Judako Lehoia”

eta honi egiten dio erreferentzia Gandarak berak ere sarrerako ahapaldian eta errepikan. Bestalde, *Lioia bildosturic* datorrela diosku kantik, Juan Bataiatzaileak Biblian Jesus izendatu zuen moduan; munduko pekatu guztiak barkatzeko gai den salbatzailea. Honela, plano bi agertzen zaizkigu kontrajarrita: botere espirituala eta botere terrenala. Izan ere, gizakiek, agian errealitatean oinarrituta, euren miseriatik aterako dituen askatzaile borrokalaria espero dute, Heroi gisakoa izango dena, “Judako Lehoia”. Baina Judako Lehoi honen ordean, Jesukristo jaioko da, bildotsaren apaltasuna izango duena, gizaki espirituala; izan ere, modu honetara lortuko baitu bere helburua: gizakien arimak (edo gogoak) askatzea.

Beste alde batetik, kanta honetan ongi etorria den bildots hori Ama Birjinaren altzoan dago lo gozoan etzanik, azal gorrixka dauka eta ez dago bera bezain samurrik inguru hartan. Jesusen jaiotzak guztiak zoratu ditu atseginez eta pozez, lur zein zeru. Hala ere, Ama Birjinaren ontasuna dago guztiaren gainetik, bere altzoan dago umea gozoki etzanik, berak ematen dio (zeruak, Jainkoari esker) bular gozoa, Jangoikozko begiak ditu, zeruko erregina da eta horrela mundutarrei edo artzainei penak kentzeko ahalmena dauka eta, beraz, bera tartean den bitartean salbu egongo gara.

Hauetz gain, aingeruak ere azaltzen dira, Jesus jaio den berria zabaltzen dabilzanak, urduri. Joseri dagokionez, ostera, aurreko kantan, aipatu behintzat egiten zen, baina honetan ez da aipatu ere egiten.

Azkenik, *Guernicaco Gabon Cante. Hurte 1764: Muxhil, da Vizcaitar baten artean* deitutakoa aztertuko dugu. Hemen ere, aurreko bietan bezala, gai nagusia artzainen adorazioa da. Kantaren egiturari dagokionez, lagun biren arteko elkarrizketa gisa antolatuta dago: Muxhil eta Vizcaitar bat. Hamabi dira bi lagunek kantatuko dituzten ahapaldiak. 12 ahapaldi hauetan lehenengo egoeraren berri ematen da, zer dela eta doazen Belenera (1), Belenen ostatu bila dabilela Ama Birjina (2), Belengo jendea zikoitza dela Ama Birjinari ostatu ez emateagatik (3), abere etxe batean erditzen duela Jesus (4), mirariaren harridura eta poza (5-6), deabrua gaitzeztea (7), Ama Birjina laudatzea (8-11) eta amaierako lerroa (12).

Ahapaldi hauen aurretik, ostera, obraren muina osatzen duen sarrerako elkarrizketa bat dago (*Sarmen*), musikoki errezitaldiak bezalakoa litzatekeena.

Errezitatu honi koral batek jarraitzen dio (*Gustiac* deitzen duena Gandarak) eta, bertan, bi pertsonaiek erabiliko duten euskara zein izango den aurrerakusten da. Bestalde, lehen ahapaldiaren ostean, Muxhilek abesten duena, errepika bat dago (*euscarichua* deitzen duena Gandarak), itxuraz koral izaeraduna hau ere, guztiek batera abestuko luketena eta, bertan, euskaldun berriaren euskararen kalitatea ponderatzen da (Lekuona 1985: 62).

Agian ausartegia da esatea, baina badirudi egiturari dagokionez, *zejel* arabiarren itxura duela Gandararen Gabon Kantako sarrerak, hots, Muxhila eta Bizkaitarraren elkarriketaren aurrekoak. Otaegiren hitzak bergogoratuz, hark dio *zejelak* metrika aldetik gehienetan sei edo zortzi silabako lerroez osatua daudela; Gandararen ahapaldi honek 6565778844447878744 silabako lerroak ditu, agian honela bereiz daitezkeenak: 6565 7788 4444 7878744. *Zejeletan* sarrerako hiruzpalau lerroko ahapaldi baten ostean, beste ahapaldi batzuk zetozen (*mudanza*) eta horien ondoren, *vuelta* izeneko ahapaldi labur bat, hasierakoarekin lotu eta hura osorik nahiz zatika errepikatzen zuena. Bada, Gandararen Gabon Kanta honetan, elkarriketa labur gisa dagoen ahapaldi horretan, hasierako lau lerro edo lerroen ostean (6565), beste lerro batzuk datoz, neurritz luzeagoak direnak (7788), nahiz eta Gandarak ahapaldi berean eman zituen; hauek, *zejel* arabiarren *mudantzen* parekoak izan daitezke. Lerro hauen ostean, laburragoak diren beste lerro batzuk datoz, 4444 neurrikoa eta *vuelta* horien pareko izan daitekeena. Egin dugun lerroen banaketak *zejel* arabiarren egiturarekin bat egiteaz gain, badu koherentzia lerroen neurriarekin eta errimarekin ere. Izan ere, 6 silabatako lerroek elkarrekin errimatzen dute, baita 5 silabakoek, 7koek eta 8koek ere. Gainera, 4 silabako lerroek aldaketa dakarte, neurriari dagokionez (begibistakoa dena), baita errimari dagokionez ere, lehenengo lerroak azkenarekin egiten baitu errima eta bigarrenak hirugarrenarekin. Laburbilduz, honako egitura hau genuke: a6, b5, a6, b5, c7, c7, d8, d8, e4, f4, f4, e4, g7, a8, g7, a8, g7, h4, h4. Bestela esanda, *serventesio* bat (abab) eta bi *pareado* edo lerro bikoitz (cc, dd), *erredondilla* edo lauho txiki bat (effe), beste *serventesio* bat (gagag) eta amaierako lerro bikoitz bat (hh) ditugu.

Sarrerako ahapaldi horretatik kanpoko ahapaldiek, zortzi lerro dituzte 63635563 neurriarekin, *euskaritxu* edo errepikak salbu. Azken honek, sei lerro ditu 242474 neurriarekin eta lerro bakoitiek bakoitiek egiten dute errima eta bakoitiek bakoitiek. Salbuespena 7 silabadun lerroa da, neurritz nagusia izateaz gain, ez baitu errimarik egiten beste lerroekin eta, beraz, lerro askea da. Honako egitura dauka errepikak, beraz:

a2, b4, a2, b4, -7, b4. Gainerako ahapaldiei dagokienez, espero den bezala, lerro bakoitiek bakoitiek egiten dute errima eta bakoitiek bakoitiek. Tartean dauden bost silabako lerroek ere errima egiten dute beraien artean. Honakoa genuke egitura: a6, b3, a6, b3, c5, c5, a6, b3. Bestela esanda, *serventesio* bat (abab), lerro bikoiti bat (cc) eta *serventesio* erdi (ab) ditugu. Beraz, aurreko kanta bietan bezala, lerroen neurriak bat datoz lerroen errimekin, hau da, silaba kopuru bera duten lerroek elkarren artean egiten dute errima, bai sarrerako ahapaldietan, bai errepikan bai gainerako ahapaldietan ere. Izan ere, lerro bikoitiak ez ezik bakoitiak ere errimatzeak harritu zuen Lekuona (1985:68), baita errima orokor honen tartean errima desberdineko lerro bikoitz bat sartzeak ere —XVIII. mendean ohikoa zena—. Merezi du haren hitzak hona ekartzea:

La métrica de la composición, es comparable con la muy sabia y artificiosa de las obras poéticas de Oihenart. Como ritmo y como rima. La rima es muy rica y selecta, rimando no sólo los versos —brevísimos versos— pares, sino aun los impares: en, verdadera consonancia; y hasta con una novedad —hoy en desuso, pero corriente en la poética del siglo XVIII— de intercalar en medio de una rima general, un pareado de rima distinta. Procedimiento que conocemos como usual a través del P. Meagher en sus versos al vino, y del P. Basterrechea en su Poema de la Pasión, y que fue seguido después por Xenpelar en la canción que dedicó a Iparraguirre y a las muchachas de Oyarzun, y en la que cantó contra la guerra. Esta intercalación pone una nota de sorpresa en el proceso general de la estrofa, con el consiguiente agrado estético del oyente o lector.

Egia esan, guk ere nabaritu dugu Gandararen Gabon Kantetan bilakaera nabarmena dagoela lehenengotik (1757) hirugarren honetara (1764). Ez ziren, beraz, alperrik pasatu zazpi urte Gandararentzat; izan ere, azken kanta honetan moldeak, neurri eta errimak, askoz landuago daudela esan daiteke. Agian 1762ko kantak Larramendiren partetik izan zuen harrera onak bultzatu zuen Gandara bere teknika fintzera eta hobetzera.

Pertsonaiei dagokienez, bi multzo bereiztea komeni litzatekeela uste dugu: alde batetik, poeman bertan agertzen diren pertsonaiak; eta bestetik, poema errezitatzen duten pertsonaiak. Lehenengo multzoari dagokionez, Ama Birjina da pertsonaia nagusia; Jesus semea eta Jose aipatu ere ez dira egiten. Ama Birjina, beti bezala, andre txukun bezala ageri zaigu, bihotz bigunekoa, beso gozoduna, ugatz guriduna, etab. Bestalde, Belengo herritarrak ere ageri dira, pertsona bihotzbako eta zikoitz gisa, ez baitote Ama Birjina gajo eta haurdunari ostatu ematen.

Kantaz kanpoko pertsonaiak, ostera, Muxhil eta Bizkaitarra ditugu. M. Lekuonak (1985:61) dioenez, bi pertsonaia hauek kontraste handikoak dira, batez ere hitz egiteko moduari dagokionez. Gandarak *vizcaitar* esaten diona euskaldun zaharra da eta, beraz, ondo konpontzen da euskaraz; bestea, *muxhil*, euskaldun berria da eta bere hizkera traketsak edo, behintzat, ez euskaldun zaharrarenak, barrea eragiten dio entzuleari. Hala nola, euskaldun berriaren hizkeraren ezaugarri batzuk aipatzen ditu Lekuonak berak (1985:68): 1.- aditz laguntzailearen ezabaketa: (*Urtengo* (dau) *canta gustia...*, *zaldarra urtengo* (ai-leuskio!)..., *anche nic*<sup>10</sup> *egon* (banintza)... *aguinoc naico* (do-zak) *cerratu?*..., *emon* (go deustat) *zorroztua nik zerre...* 2.- aditz desegokia erabiltzea, hala nola, *da* laguntzailea erabiltzea behar ez denean ere: *...nic yakin-miñea asco da por asko dot;* *...mosu da emon*, por *mosu neuskion emon;* *... esan da nic*, por *esan o esango dot nik...* 3.- Bestelako hitz-ordenak erabiltzea: *...Judan bat huria da Belen...*, *Zerren zalaco Jose yatorria Daviden...*, *Noc dau ez orretan mirari?*..., *Zuc eguin sotilac erregu...*

Bizkaitarraren euskara, ostera, zuzentasun osokoa da eta, beraz, ahapaldi gehienetan ondo eraturako esaldiak darabiltza. Bestalde, bizkaitarra da kasu guztietan Birjinarentzat hitz goxoak dituen eta, beraz, samurtasun honek ere bere alde egiten du. Gandara, kaleko hizkera jartzean bi lagun ahotan, Barrutiaren antzezlanetara hurbiltzen da eta, ostera, urrundu Peñafloredaren hizkuntza jasotik. Artzainen arteko elkarrizketa eran antolaturiko bilantziko dramatizatuak ez ziren bakanak izan. Besteak beste aipagarri dira N. de Zubiaren *Coloquio entre los pastores*, 1691eko *Doctrina Christianan* argitaratuak Donostian.

Lekuonak berak dioenez (1985:61), gisa honetako lanak elizan abesteko eginak ziren, antzerki erlijioso gisara. Agian, horregatik erantsi zion Gandarak komikotasun puntu bat pieza honi, antzezteko zela jakinik, alegia. Izan ere, kaleko hizkera erabiltzeak zein elkarrizketa eran antolatuta egoteak eta barrerako motibo bihurtzea hauek, antzerkitasun puntua ematen diote kantari. Gandararen gabon-kanta antzeztua zela entsatzeko arrazoiak testuan bertan aurki daitezke bukaera honelaxe baita (Kaltzakorta, 1999:132):

---

10

Ergatiboa bera ere gaizki jarrita dago, *ni* behar bailuke aditz iragangaitzarekin.

*Apaintzalleari*  
*Osaia*  
*enda Baltzolari*  
*gracia.*  
*Eguin dan bihar*  
*biraldu bear*  
*Yacaz Muxhilari*  
*saria.*

Antzerki-lantxoak apaindu edo prestatu zion pertsonari eskerrak ematen zaizkio. Baita aktore-lanetan ere ibili denari, horrexegatik agertzen da azkenean Baltzola delako bat.

### **3.2. Sor Luisa (edo Peñafiorida, nahiago bada)**

Atal honetan, Gabon gauean Azkoitiko parrokiaren kantatua izateko 1762an sortutako *Gavon saria* artzain-opereta izango dugu aztergai. Obra hau, goian aipatu dugunez, Sor Luisaren izenean dator izenpeturik, nahiz eta adituen arabera Peñafioridako kondea dagoen izen horren azpian. Nolanahi ere den, guk obraren ezaugarriak erreparatuko diegu atal honetan.

Operetaren izen osoa, *Gavon-saria edo aurtengo gavonetan Ascoyrico eleiza nagusian kantatuko diran Gavon-cantac edo otsaldia* da. Hiru *otsaldi* edo kantetan dago banatuta: lehenengoa, *Tonadillea* eta *Segidilla* osatzen dute; bigarrena, *Aria* bat da, *Karidadearen eta egiazko amorioaren auan* jartzen dena eta, honen ostean, parte errexitatu bat dator, azkenik, *Ariatxo* batekin amaitzeko; eta hirugarrena, *Artzai kanta* izenburudun kanta bat da, aurretik *Adirakaia* duena sarrera gisa. Obra amaitzeko, *Kopla jostallu* batzuk daude azkenean. Hauek dira, esan bezala, *Gavon-saria* lanaren parte eta, hirurak izanik Gabon Kantak, artzainen adorazioa dute gai nagusi, Gandararen Gabon Kantek bezala.

Lehenengo kanta, esan bezala, *Tonadillea* eta *Seguidilleak* osatzen dute. Jatorriz, tonadilla espainiako kanta tradizionalak dira, gaztelaniaren Urrezko Aroko jakaretatik datozenak. Aldi berean, jakarek jatorri arabiarra daukate eta musika instrumentuekin laguntzeaz gain, antzezlanen atsedendietan abesten ziren dantzekin txandakatu. Jakaretan erabiltzen zen hizkera herrikoa zen eta gai pikarokak edo abenturazkoak izaten zituzten gehienetan. XVIII. mendean orokorrean zortzi edo sei silabatako lerroak izaten zituen tonadilla. *Gavon-saria*-en daukagun tonadilla honek, lau lerrotako ahapaldi bat du hasieran sarrera gisa. Bertan, narratzailearen harridura adierazten da eta bere hitz

hutsak inork ez dituela sinistuko auresaten du. Honen ostean, beste lau lerrotako errepika bat dator, honela dioena: *Bada ni ere/ Neure ikusirik,/ Egon naiz eziñ/ Sinisturik*; hau da, norbere begiekin ikusi arren ere zaila egiten dela gertatutako miraria sinistea. Honen ondoren, zortzi lerrotako ahapaldi bat dator, lekuan eta egoeran kokatzen duena entzulea: *abe-etxeak dirudi zerua eta ez da hainbeste mirari/ Ekusi iñoz lurrean*. Honen jarraian, aurreko errepika berbera dator. Tonadilleari amaiera emateko, beste zortzi lerrotako ahapaldi bat dator, ondoren kantatuko den *Segidillari* sarrera emateko eta isiltasuna eskatzeko.

Tonadillako lehenengo ahapaldia, esan bezala, lau lerrok osatzen dute; bakoitiek bederatzina silaba dituzte eta lerro askeak dira. Bakoitiek, ostera, zortzina silaba dituzte eta errima egiten dute beraien artean (-*anz*): -9, a8, -9, a8. Bestela esanda, *seguidilla* bat daukagu. Bigarren ahapaldia (ez errepika), ostera, zortzi lerrok osatzen dute eta nahiko nahasia da bai neurriaren aldetik, bai errima aldetik; izan ere, lehenengo hiru lerroek eta bosgarrenak bederatzina silaba dituzte, laugarren lerroak zazpi eta azken hirurak zortzina silaba. Errima, ostera, lehenengo, seigarren eta zortzigarren lerroek egiten dute (-*an*), gainontzeko guztiak askeak dira: a9, -9, -9, -7, -9, a8, -8, a8. Ahapaldi honen ostean (errepika eta gero, noski) datorren zortzi lerrotako ahapaldian, lehenengo lau lerroak zortzi silabatakoak dira eta beste lauretatik bi seikoak eta bi bostekoak. Zortzi silabatako lerroak *serventesioak* dira, bakoitiek bakoitiek egiten baitute errima eta bakoitiek bakoitiek. Sei eta bost silabako lerroak ere *serventesioak* dira, seikoek seikoekin (eta, beraz, bakoitiek bakoitiek) egiten baitute errima eta bostekoek bostekoekin (eta, beraz, bakoitiek bakoitiek): a8, b8, a8, b8, c6, d5, c6, d5.

Tonadillarekin amaituta, segidillak datoz jarraian. Lehenengo, lau lerrotako ahapaldi bat daukagu, lerro bakoitiak zazpi silabadunak eta askeak direnak eta bakoitiak, ostera, bost silabadunak eta errimadunak beraien artean (-*ean*). Ahapaldi honen egitura -7, a5, -7, a5 da, segidilla bat, beraz. Honen ostean, lau lerrotako errepika dator, lerro bakoitiek beraien artean errima egiten dutenak (-*ia*), beraz, honakoa genuke errimaren egitura: -5, a5. -5, a5. Honela dio errepikak: *Ai, aur ederra!/ Ai, aur guria!/ Ai, aur gozoa!/ Ai, aur ezitia!*. Bestalde, errepikaren ondoren datorren ahapaldiak bost lerro ditu (segidillan bost lerro dituen bakarra da) eta lehenengo biak, aurreko ahapaldiaren azken bi lerroen errepikapena dira. *Otzak kil, kil, kil datza/ Lasto gañean* amaitzen da lehenengo ahapaldia eta errepikaren ostean datorren ahapaldia horrela hasten da: *Otzak kil, kil, kil datza/ Lasto gañean*. 2. ahapaldiko errepikapenaren ostean datorren lerroak, 3.ak, 2. lerroarekin egiten du errima (-*an*), baita 5. lerroarekin ere; izan ere, hiru lerroek dituzte bosna silaba eta, beraz, neurria eta errimak bat egiten dute

hemen ere. 1. lerroak (aurrekoaren errepikapena ere badena), ostera, sei silaba ditu eta 4. lerroak zortzi, beraz, espero zitekeen bezala, askeak dira biak ala biak. Honako hau da 2. ahapaldiaren egitura: -6, a5, a5, -8, a5. Ahapaldi honen ostean, berriro errepikatzen da lau lerrotako errepika eta, honen ondoren datorren ahapaldien egitura errepikatu egingo da segidillaren gainontzeko partean: lau lerrotako ahapaldi bat eta hiru lerrotako bat errepikaz banatuta. Guztira horrelako hamabost datoz jarraian (3 eta 4. ahapaldiak, 5 eta 6. ahapaldiak, 7 eta 8. ahapaldiak, 9 eta 10. ahapaldiak, 11 eta 12. ahapaldiak eta horrela 31 eta 32. ahapaldietaraino), beraz, *segidillatxoa* nahiko luzea dateke. Ahapaldi bakoitiak (3, 5, 7, 9, etab.) denak dira segidillak, hau da, bosna silaba dituzten lerro bikoitiek elkarren artean egiten dute errima eta zazpina silaba dituzten lerro bakoitiak, aldiz, askeak dira. Honakoa genuke ahapaldi bakoitien egitura: -7, a5, -7, a5. Dena dela, gehienetan errima kontsonantea izan beharrean, asonantea da; hau da, ez du azken silaba osoak egiten errima, bokalek baizik. Hona hemen adibide gisa 5. ahapaldia i-a bokalen arteko errima asonantea duena:

*Txit emakume eder bat  
Alboan jarrita,  
Zoro biurturik dago  
Ari begira.*

Nolanahi ere den, badago ahapaldi bat, 9.a, errimarik ez duena; izan ere, lerro bakoitiak *gizona* eta *Jaungoikua* amaitzen dira. Bestela, ahapaldi guztiak egokitzen dira azaldutako eskemara.

Bestalde, ahapaldi bikoitiak hiruna lerrotakoak direla esan dugu (tertzetoak) eta, hauen kasuan, bosna silaba dituzten lerro bakoitien artean egiten da errima eta zazpi silabadun lerro bakoitia aske geratzen da. Honakoa litzateke ahapaldi bakoitien egitura: a5, -7, a5. Hauetan ere errima asonantea edo konsonantea, biak azaltzen dira.

Esan bezala, tonadillak sarrera egiteko balio du kanta honetan eta, beraz, ez da bertan pertsonaiarik ageri. Segidilletan kontaktzen da sarreran aipatutako miraria eta, beraz hemen agertzen dira pertsonaia nagusiak. Jesus, *aurtxo zoragarri bat* bezala ageri da, eta hotzez dago portalean inork ez diolako ostatu eman Belenen. Lasto gainean dago asto eta idiz inguratuta eta, beraz, abereak belendarrak baino errukiorragoak dira<sup>11</sup>. Ondo azpimarratzen da eszenaren goxotasuna: abereek umeari ematen dioten berotasunarekin eta gurasoen presentziarekin, *konpañia ezitsuan* dago Jesus. Izan ere, Jesusen ondoan dago Ama Birjina, txit emakume eder bat umearen jaiotzaz pozarren eta

11

Hemen ageri zaigu astoa eta idiaren irudia, berez Biblian jasotzen ez dena, baina bertsiio herrikoiek gehitu dutena gerora samurtasunaren adierazle.



elkarren antza omen dute. Ama Birjinak umea erditu arren, “dontzella garbia” dela azpimarratzen da (hau bai benetako miraria!); izan ere “espíritu garbi” batek ernaldu baitu, argiak kristala zeharkatzen duen bezala: *ausirik gabe,/ Ta loirikan batere/ Utzirik gabe*. Bestalde, Jose ere agertzen da haurraren ondoan pozaren pozaz malkoak ezin eutsirik eta haurraren aita ez bada ere, ordekoa izango da eta zorionekoa, hargatik. Horrez gain, ez dago beste inor Jesusekin eta, honekin, mundutarrak kritikatzeko dira, bihozgabeak eurak: *Mundu zoroa!/ Ez du sekula jakiñ/ Zer dan gauza ona*. Hala ere, *berekiñ dauka/ Zeru guzia*. Horregatik dei egiten zaie denei Jesus adoratzera joan daitezen, berak bakea ekarriko baitu lurrera eta bizitzan haurrarekin onak izanez gero, heriotzean *eramango gaitu [...]/ Bere Aitagana,/ Sekulako bizitza/ Ta gloriara*.

*Gavon-sariac* operetaren bigarren *otsaldi* edo kanta, esan bezala, *Aria* bat da, *Karidadearen eta egiazko amorioaren auan* jartzen dena. Lehenengo ahapaldian sarrera moduko bat egiten da bost lerrotan eta zoriontasuna zein urduritasun egoera agertzen dira. Honen ostean, parte errexitatu bat dator, naturako elementu guztiei egiten diena dei Jainkoaren gloria kantatzeko: eguzkia, ilargia, izarrak, mendiak, muinoak, ibarrak, basoak, arolak, loreak, errekek, *Itz batean, zerua bere ariakiñ,/ Lurra, itxasoaz ta ur guziakiñ*. Honen ostean, *Ariatxo* bat dator kantari amaiera emateko eta, bertan, Jesus umearen etorrera kantatzeko sarrera egiten du, hirugarren *otsaldian* edo kantan abestuko dena.

Lehenengo ahapaldiak, esan bezala, bost lerro dauzka. 1., 4. eta 5. lerroek zortzina silaba dituzte eta 1 eta 4-k errima kontsonantea dute (-oa) eta 5. lerroa askea da. 2. eta 3. lerroek, aldiz, bosna silaba dituzte eta errima asonantea dute (i-a). Beraz, honako egitura luke ahapaldi honek: a8, b5, b5, a8, -8.

Honen ostean datorren parte errexitatuak 23 lerro dauzka eta, oro har, lerro bikoitiak dira, hauetako guztia errima kontsonantedunak. Dena dela 1. lerroa askea da, 8.a eta 11.a bezala. Neurriari dagokionez, zalantzak zalantza, errexitatuak honako egitura duela dirudi: -7, A13, A13, B12, B12, C11, C13, -14, D13, D12, -12, C11, C12, A13, A11, E12, E12, F13, F12, B12, B12, C12, C13. Bidenabar, 7, 13 eta 12 lerroak errepikapenak dira: *Jaungoikoaren gloria, gaurko gabea*. Gure jakintza maila dela eta ezin izan dugu metrika edo neurriari dagokionez ezer koherenterik atera; agian gehiago dakikeen norbaitek bila diezaioke halakorik.

Parte errexitatuaren ostean datorren *Ariatxo*a zortzi lerrotako lau ahapaldik osatzen dute. Ahapaldi bakoitza honela dago antolatuta: lehenengo hiru lerroek (1-3)

bosna silaba dituzte, 4.ak lau, hurrengo hiru lerroek beste bosna (5-7) eta azkenak lau. Errimari dagokionez, lehenengo biak eta 5 eta 6 lerroak bikoitzak dira eta, beraz, elkarrekin egiten dute errima bai 1 eta 2 lerroek, bai 5 eta 6 lerroek ere beraien artean. 3 eta 7. lerroek ere beraien artean egiten dute errima eta, lau silabatako lerroek ere, 4.ak eta 8.ak, errima egiten dute beraien artean. Honako hau litzateke ahapaldien egitura: a5, a5, b5, c4, d5, d5, b5, c4. Nolanahi ere den, azkeneko ahapaldia besteetatik bereizten da; izan ere lehenengo bi lerroak eta 5. eta 6. lerroak bikoitzak dira eta elkarren artean egiten dute errima, aurrekoetan bezala, baina 3. eta 7. lerroak askeak dira oraingoan eta 4. eta 8. lerroak launa silabatakoak izan beharrean, hiruna silabatakoak dira; hori bai, elkarren artean errima egiten dute.

Ariatxo honetako pertsonaia nagusia ere Jesus haurra da, lastotan dagoena etzana. Ez dago beste pertsonaiarik, salbu eta kantua abesten duen pertsonaia “Ni” gisa ageri dena. “Ni” hau honela mintzo zaigu: *Nik ekarririk/ Gizon egiñik,/ Nik gaur bear det/ Kantatu/ Bere etorrera/ Gizon artera;/ Eta ala zuek/ Lagundu*. Badirudi Jainkoa dela kantatzen ari den “Ni” hori.

*Gavon-sariac*-en hirugarren *otsaldia* edo kanta, *Artzai kanta* izenburuduna da. Kantaren aurretik *Adirakaia* dauka sarrera gisa eta bertan, kantatuko dena azaltzen da prosa gixa. Honelaxe dio:

**Guziak dakite nola aingeruak gaztigatu  
zieten Belen inguruko artzaiari munduaren  
Salbatzallea jaio zala estrabi batean (3).**

Ebanjelioko pasarte onetatik ta beste toki askotatik, nun J. K. gureak bere burua artzaitzat izendatzen duen, artu izan da otsaldi edo kanta onen irudidea; zeñean asmatzen dan, Belen inguruko artzaiak, jakiñik Artzai berri bat eldu dala abel-etxera, alkar arturik diazela ongi-etorria ematera. Onetarako, Tersis ta Filis lagun guztietatik gazteenai, ta bozik onenak dituztenai, enkargatzen diete ongi-etorria guzien izenean ematea, zeintzuek au egiten dute kanta berri onetan; nun artzaiaren egokikilde edo *metaforaren* azpian estaltzen diran Jesu-Kristoren bizitza ta gure Fedeko misteriorik nagusienak.

Honen ostean, *Artzai korua* hasten da kantatzen eta Jesus jaio den abel-etxera joateko proposamena botatzen dute, hari ongi etorria emateko abestuz. Zazpi eta bost silabatako bederatzi lerrotako ahapaldia da. 1. lerroak, 5.ak, 8.ak eta 9.ak zazpina silaba dituzte eta, gainontzekoek bosna. Errima 2 eta 4. lerroek egiten dute elkarrekin (-ra), baita 3.ak, 5.ak eta 6.ak beraien artean ere (-at). Honakoa litzateke ahapaldiaren egitura: -7, a5, b5, a5, b7, b5, -5, -7, b7. Bestalde, ahapaldi honetan, *Tertis* eta *Filisek* artzain izenak agertzen dira eta beraiei egiten zaie Jesusi kantatzera joateko gonbitea. *Artzai koruari* erantzunez, *Tertis* eta *Filisek*, biek erantzuten dute hamabi silabatako bi lerroz, lagun diezaietela artzainek *estribillo* edo errepika bat abestuz denen artean. *Artzai koruak* ostera, *Ordu onean* erantzuten du, baietz, lagunduko dietela.

Hortik aurrera *Tertis* eta *Filisek* izango dira abestuko dutenak zortzi lerrotako ahapaldietan, guztira 15, eta ahapaldi bakoitzaren ostean, *Artzai korua*ak errepika abestuko du. *Tertis* eta *Filisek*en 15 ahapaldiek egitura berbera daukate. Esan bezala, zortzina lerro dituzte, zortziko txikian kantatzen direnak, bertsolaritzan bezala eta, beraz, errima lerro bakoitiek soilik egiten dute beraien artean. Honakoa da, beraz, egitura: -7, a6, -7, a6, -7, b6, -7, b6.

Sarrera edo *adirakaian* agertzen den bezala, Jesu Kristo artzain gisa agertuko zaigu kanta honetan (Ebanjelioak hala esaten duelako) eta, beraz, gainontzeko artzainek ere “artzain” deituko diote. *Tertis* eta *Filisek*en lehenengo ahapaldian, esaterako, *Artzai zoragarria!*-ri ongi etorria ematen diote eta bera izango da kantako pertsonaia nagusia. Kantan esaten denez, gainontzeko artzainek lasai utzi dituzte artaldeak bakarrik, pizti eta lapurreten beldurrik gabe, Artzainak (Jesu Kristok) zainduko baititu dagoen lekuan dagoela. Hori dela eta, “*Etsaia alperrik dabil/ Leoia bezela,/ Inguruka, ustez zerbait/ Artuko duela./ Judako leoiaren/ Begiratzun batek/ Utzi erazoko dizka/ Laxter bazter abek.*” Azken lerro hauetan, Judako Lehoia ageri zaigu (ik. Gandara, 1762ko Gabon Kanta), haren begirada bakar batek etsai guztiak uxatzeko adina botere duela esaten zaigu.

Bestalde, hirugarren kanta honetan etorkizuneko aurreikuspenak egiten dira sarritan, Jesu Kristo bildotsaren eskuzabaltasun eta pazientziak ekarriko dizkion ondorioak izango direnak. Lerro hauek, artzainek Jesu Kristori kantatzen dizkiete gertatuko zaionaren aurreikuspen gisa. Hona hemen adibide zenbait (gehiago daude kantan, hala ere): *Ta aiñ maite artaldea/ Izango dezula,/ Non ta azkenik bizitza/ Kastauko zaitzula/ (5. ahap.); Ogei ta amairu urte,/ Pena andiz beteak,/ Emango ditzu,*

*abek/ Ondo gordetzeak;/ Ta aien kabuan gero/ Esker ematea/ Izango da gogorki/ Bizitza kentzea* (9. ahap.), etab.

Azken ahapaldian (16.a), Jesu Kristo Artzainaren menpean bizitzea onartzen dute gainontzeko artzainek, honek Aitagana eramango baititu heriotzako orduan. Jainkoa, beraz, “Aita” gisa ageri zaigu.

Obrari amaiera emateko, *Kopla jostallu* batzuk daude azkenean. Zortziko txikian egindako hamaika ahapaldi dira eta hauek ere Jesusen jaiotzaren miraria kontatzen dute. Lerro bakoitiek zazpina silaba dituzte eta askeak dira; bikoitiek, berriz, sein silaba dituzte eta beraien artean egiten dute errima. Honako hau da, beraz, kopla hauen egitura: -7, a6, -7, a6, -7, b6, -7, b6. Ahapaldi guztiak sartzan dira neurri eta errima honetan. 1. ahapaldian, Jesus jaio den berria ematen da eta honek ekarri duen poztasuna azpimarratzen da, baina 2. ahapaldian eta hurrengoetan are gehiago; izan ere, gauza txar guztiak desagertu egin direla jaiotza honekin esaten baita “*Ta ala dago mundua/ Zeru bat egiñik*”. Azken aurreko ahapaldian, berriro ere laburpen txiki bat egiten da, honela baitio: *Auxen bai dala egiaz/ Denbora urrezkoa,/ Ta ez len koplari zarrak/ Erautsitakoa;/ Orain aien amesak/ Egia sorturik,/ Ekusten ari gera/ Pozez zoraturik*. Azkeneko ahapaldia, ostera, entzuleei zuzenduta dagoen agurra da eta honela dio:

*Baña kanta berri au  
Geitxi luzatu da,  
Nire eztarri tristea  
Ia urratu da;  
Naiago det ixildu  
Katarratu baño;  
Agur, nere jendeak,  
Hurrengo urteraño.*

*Gavon-sariekin* amaitzeko, hona hemen zer dioen Mitxelenak (1960:150) hauen idazkeraz:

Son una inspirada paráfrasis en jugoso lenguaje de la égloga cuarta de Virgilio, de un bucolismo encantador.

Eta, bestalde, gogora ditzagun Juan San Martinen hitzak (1975:455):

Teatro antzera egindako obra honek, ikasi batek egindako kanta herrikoiak ditu. Estilo jolaskorra, baina batez ere erudiziozkoa, jakintzaz hornitua, eta hau da hain zuzen Ilustrazio garaiko agergarrikerik bereziena.

Bertan, lehen aldiz, kontzeptu berriak agertzen dira gure literaturan. Ez du Barrutiaren bezalako herri teatro antzik. Behar bada jenero bereko beste era bat da.

Horrela, bada, esan daiteke *Gavon-sariac* obran agertzen zaigun luma trebea dela eta honen atzean legokeena pertsona jakintsua izan behar zela, ezinbestean. Garaiko kanten ezaugarriak ezagutzeaz gain primeran menperatzen zituela esan daiteke.

#### **4. Ondorioak: bi lanen arteko antzekotasun eta desberdintasunak**

Gabon Kanta bakoitza bere aldetik azertu ostean, atal honetan bi autoreen obren arteko konparaketa txiki bat egingo dugu, hauen artean dauden antzekotasunak eta desberdintasunak aztertuz horretarako.

Gandararen kasuan, hiru kanta izan ditugu aztergai aurreko atalean; Sor Luisa (edo Peñafloredarenak), ostera, bakarra (baina luzea, berau). Bi autoreen lanak sail berean sartzen dira; izan ere, biak dira elizan kantatzeko egindako lanak. J. M. Lekuonak (1985) Gandararen 1764ko obra –eta uste dugu gainontzeko Gabon Kantak ere sar daitezkeela– herri-antzerki melodramatikoaren sailean sartu zuen eta, honekin batera, Barrutiaren *Gabonetako ikuskizuna* eta “Muniberen” *Gabon sariak zein El borracho burlado* ere multzo berean sartu zituen. Kortazarrek (1997:106) ere, *Gabon sariac* XVIII. mendetik aurrera Euskal Herri osoan hedatuko den Eguberri kanten tradizioan sartzen du –gure ustez, aurrean aipatutako besteekin batera–.

Hizkerari dagokionez, M. Lekuonak (1985:61) dio Gandarak Barrutiak bezala, kaleko hizkera darabilela eta hauek darabiltena ez dela, inondik inora, Peñafloredaren antzezlanetan agertzen den hizkuntza jaso. Hala ere, Lekuonarentzat aipagarria da Gandarak erabiltzen duen errima aberatsa eta landua. Lerro bikoitiak ez ezik bakoitiak ere errimatzeak harritu zuen Lekuona (1985:68), baita errima orokor honen tartean errima desberdineko lerro bikoitz bat sartzeak ere. Bestalde, Arana Martija (1976) Gandararen 1757ko Gabon Kanta aztetzen ari denean, beste idazle batzuen lanak gogorarazten dioten esaldiak aipatzen ditu:

- “*Enas ni yoango utzean tiene similitud con utzik banator, parkatu de Barrutia y Utzirik gatoz baña ardurarik gabe de Sor Luisa.*” Bada, Barrutiaren kasuan ez dakigu zer gertatzen den, baina Gandara eta Sor Luisaren artean Arana Martijak jarritako paralelismoa ez zaigu oso egokia iruditzen. Izan ere, Gandararen kasuan esaldi horrek esan nahi duena da “ez

naiz esku hutsik joango” eta Sor Luisarenean, ostera, “artaldeak bakarrik eta txabolak zaintzarik gabe utzita gatoz” esan nahi du, beraz, guk ez dugu inolako paralelismorik ikusten bi esaldietan ez bada biek daukatela ‘utzi’ hitza eta ezeztapen bat.

- “El *ceñetan seinchua/ datzan oyaldua* de Gandara recuerda al *Aurtxo... datza lasto gañean* de Sor Luisa”. Egia da bi kasuetan dagoela haurra etzanda, baina guk ez dugu paralelismo garbirik ikusten. Izan ere, kanta biek dute gai bera, biek kontatu behar dute, nahitaez, Jesus haurra jaio dela eta edonori datorkion jesusen irudia berbera da: sehaskan etzanda dago. Beraz, ez litzateke kasualitate handia biak bat etortzea. Gainera, Sor Luisaren haurra lasto gainean dago eta, Gandararen Gabon Kantetan agertzen den haurra edozein tokitan dago, lasto gainean baino; hala nola, oyaldua (1757koan), Ama Birjinaren altzoan (1762koan) eta Birjinaren besoetan (1764koan).

Gure ustez, aztergai ditugun obrak Gabon Kantak izanik, nahitaez egon behar dira antzeko kontuak bietan, gai berberak edo antzekoak jorratzen baitituzte. Kontua, gaia nola jorratzen den litzateke, beraz. Esate baterako, alde zurretik jakin daiteke Jesusen jaiotza kontatuko dutela kanta hauek eta Beleneko portaleko eszena kantatuko dutela. Horrela, bada, argi legoke bi autoreek poztasun eta zoriontasun egoera bat deskribatzera doazela eta ez liguke harritu behar honetan bat etortzea biak. Adibidez, Gandararen hiru kantetan agertzen da poztasun sentimentua: *izar gustiac dabilz/ gira bira* eta *arbolac dacustaz/ chaloca;/ da mendiac eurraz/ saltoca/* (1757koan), *Gaur gagozan pozturic,/ nola nai* eta *Jayotza onec daducatz/ ceruac, eta lurra/ atseguinez zoraturic* (1762koan) eta *Iñoh!/ Gustiz alai/ diño/ Onec non nai/ Ots eguin bear leuque.../ tantararai* (1764koan). Nola ez, Sor Luisarenean ere ageri da poztasun sentimentua: *Au egun zoratzekoa!/ Zer poz andia!/ Zer atsegiña!/ Aiñ da poz nire gogoa,/ Zein da ez dakit zer egiñ.* Eta *Mendi portitzak, aariak bezela, dantza:/ Munotxoak salto, bildostxoen gisara* (2. otsaldian) eta *Auxen bai dala egiaz/ Denbora urrezkoa,/ Ta ez len koplari zarrak/ Erausitakoa;/ Orain aien amesak/ Egia sorturik,/ Ekusten ari gera/ Pozez zoraturik.* (kopla jostalluetan). Parekatze honetan ikus daitekeen gauza esanguratsuena, gure ustean, autore biek poza adierazteko darabilten modua da; izan ere, bi autoreek naturako elementuen mugimenduaren bidez adierazten dute alaitasun, poztasun eta zoriontasuna: Gandarak izarren gira-birarekin, arbolen

txaloekin eta mendien saltoekin; Sor Luisak, mendien dantzarekin eta muinoen saltoekin.

Bestalde, Gabon Kantetan ohikoena litzateke gertatu den mirariaren aurrean jendea mesfidati agertzea. Izan ere, hain da miraria handia zaila egiten dela sinestea. Gabon Kanten artean, asko dira bai mirariaren handitasuna azpimarratzen dutenak, bai mirari hori sinesteko zailtasuna aipatzen dutenak ere edota benetan egia esaten ari direla eta sinesteko eskatzen dutenak ere. Bada, gure autoreek ere egiten dituzte halako aipamenak, baina bestelako parekotasunen artean, ez zaigu hain esanguratsua iruditzen honako hau. Esate baterako, Gandarak honela egiten du: *Arin Belenera/ goazan:/ beguiz ecustera/ eguin dan gustizco/ bervea eguiaz betea/ Fararira/ osteranzeco berbac/ utsac dira.* (1757koan), *Au ezta, ez, guzurra/ Ezpozu gura sinistu/, eguingo deutsu tnic chistu* (1762koan) eta *Garbi diñot emen/ eguia* (1764koan). Honela, berriz, Sor Luisak: *Sekulako ikaturik/ Nago ikusi dedanaz;/ Ez bait du iñork sinistuko/ Bakarrik nere esanaz eta Bada ni ere/ Neure ikusirik,/ Egon naiz eziñ/ Sinisturik.* (1. otsaldian) eta *Ez da onezkeroko esango/ Gezurrik batere,/ Egia esango dute/ Dendariak ere.* (kopla jostalluan).

Esanguratsua erizten diogu, esaterako, bi autoreek Jesusen jaiotzak ekarri dituen aldaketak aipatzeari eta, gainera, hasierako ahapaldietan egitea aipamena biek:

#### **Sor Luisa, kopla jostalluak**

Ezagun du munduak  
Jesus jaio dena;  
Ain dago mudatua,  
Ez dirudi lena;  
Len guzia zan pena,  
Negar, naigabeak,  
Ta oraiñ atsegiñ gusto,  
Algara, parreak.

#### **Gandara, 1762**

Adanen humeac nequez,  
dempora lengoetan,  
buztarria cerabillen  
cuzen sorbaldaetan.  
Azan vicitza, Garratza:  
da beragaz contu latza.

*Euscarichua*

Gaur gagozan pozturic  
Nola nai.  
Hegira!  
Baice bai,  
Begira  
Lioia bildosturic

Esan bezala, autore bien arteko parekotasun hau esanguratsua dela iruditzen zaigu, Gabon Kanta guztiek ez baitute horrelakorik egiten. Ohikoena Jesusen jaiotzaren ondorengo egoera soilik kantatzea izaten da. Baina aztergai ditugun kanta hauetan,

Jesusen jaiotzaren aurreko egoera zein zen azaltzen zaigu lehenengo; izan ere, sasoi hartan dena zen latza, gogorra, negarra eta nahigabea. Baina orain, Jesusen Jaiotzarekin dena aldatu egin da, desagertu egin dira zoritxar guztiak eta dena da poza eta zoriontasuna.

Bestalde, azpimarragarria iruditzen zaigu autore biek etorkizunaren aurreikuspena egiten dutela beraien Gabon Kantetan. Hau da, artzainak umeari abesten ari direla, esan egiten diote zein zoritxar izango dituen (batez ere Sor Luisak) eta amaieran, gurutziltzatu egingo dutela iragartzen die. Hona hemen aztergai ditugun kantetako adibideak (Gandararenak urriagoak dira, baina badago, halere):

**Sor Luisa, 3. otsaldia**

Artzaitzat zendozena  
Aintziña gengian,  
Lenagoko gizonai  
Maiz aditurikan:  
Ta aiñ maite artaldea  
Izango dezula,  
Non ta azkenik bizitza  
Kastauko zaizula.

[...]

Ogei ta amairu urte,  
Pena andiz beteak,  
Emango dituzu, abek  
Ondo gordetzeak;  
Ta aien kabuan gero  
Esker ematea  
Izango da gogorki  
Bizitza kentzea

Hala nola, autore biek aipatzen dute Judako Leoia Jesu Kristoren irudi haserre edo boteretsu gisa. Bibliatik hartutako pasartea izan arren, Gabon Kanta guztiek ez dute irudi hau erabiltzeko ohitura, horregatik esanguratsua iruditzen zaigu parekotasun hau ere. Hona hemen gure autoreen adibideak:

**Sor Luisa, 3. otsaldia**

Etsaia alperrrik dabil  
Leoia bezela  
Inguruka, ustez zerbait  
Artuko duela.  
Judako leoiaren  
Begiratzun batek  
Utzi erazoko dizka  
Laxter bazter abek .

**Gandara, 1762**

Epea eldu dinean,  
echico dozu curtzean.

**Gandara, 1762**

Gaur gagozan pozturic,



nola nai.  
Hegira!  
Baice bai,  
begira  
Lioia bildosturic.  
[...]  
Judaco Lioia, bere

Orro suz beteaquin  
Aguertuten zan gogorto  
Guizaqui tristeaquin.  
Orain datza lo gozoan  
Virginearen altzoan.

Nolanahi ere den, antzekotasunez gain badira desberdintasunak ere bi autoreen artean. Batzuetan autore biek diotena ez dator bat, hau da, autore batek gauza bat esaten du eta besteak ia kontrakoa. Honen adierazle dugu, esate baterako, honako hau:

**Sor Luisa, 1. otsaldia**

Beste gizakumerik  
Aurkitzen ez da,  
Aurtxo onen konpañia  
Eztitsu onetan.  
[...]  
Mundu zoroa!  
Ez du sekula jakiñ  
Zer dan gauza ona.  
Bañan ez zaio palta,  
Ez, konpañia,  
Bada berekiñ dauka  
Zeru guzia.  
[...]  
Argatik naski  
Dabil mundua igasi  
Toki artatik.

**Gandara, 1757**

Nor eletoque ceuen  
Gozaldira.

**Gandara, 1762**

Jayotza onec daducaz  
ceruac, eta lurra  
atseguñez zoraturic.

**Gandara, 1764**

Vici direanac  
lurretan  
baita dagozanac  
goietan,  
Andra chucuna,  
biotz biguna,  
zeuri esquer manac  
milletan.

Hemen, Sor Luisak dio munduko jendea, lurrekoak, ez direla joan Jesusengana; zerukoak bakarrik joan direla bisitatzera, mundu zoroak ez duelako inoiz jakin gauza onak estimatzen. Gandarak, aldiz, bere hiru kantetan esaten du zerua eta lurra, biak, zeudela pozarren Jesusen jaiotzarekin.

Bukatzeko, azken desberdintasun bat aipatuko dugu. Segurtasun pertsonaia gisa autore bakoitzak ematen duena ez da berbera. Sor Luisak Jesu Kristo jartzen du segurtasun ikono gisa, baina Gandarak, berriz, Ama Birjinarengan aurkitzen du segurtasun hori. Hona hemen adibideak:

**Sor Luisa, 1. otsaldia**

Eska zaiogun bada  
Lendabizian,  
Ez gaitzala, arren, utzi,  
Gure bizian.  
[...]

Gurekin dela,  
Ez gera ezeren beldur,  
Naiz dena dela.

**Gandara, 1762**

Zure seme bigun orri,  
ama maitegarria,

asserratu cedaquion,  
hoi da geure larria.  
Zeu bitarteco bazara,

seguru egongo gara.

## 5. Bibliografia

- Aldekoa, Iñaki, 2008, *Euskal Literaturaren Historia*, Erein. Donostia.
- Ansorena, Jose Luis, 1983, “La música en el País Vasco en los siglos XVIII y XIX”, *Eusko Ikaskuntzaren IX Kongresua*, Eusko Ikaskuntza, 295-310.
- Arana Martija, Jose Antonio, 1976, “Gabon Kanta de Guernica de 1757”, *Euskera* XXI, 89-98.
- \_\_\_\_\_, 1984, “Sebastian Antonio de la Gandara Bizkaiko idazlea”, *Euskera* XXIX, 499-510.
- Arejita, Adolfo, 1999, “Peñafloridaren literaturaz eta hizkera ekarriaz”, *Euskera* XLIV.
- \_\_\_\_\_, 1982, “Gandararen kanta ezezagun bat (1762)”, *Idatz-Mintz* 2. 18-19 or.
- Aresti, Gabriel, 1965, *Teatro zaarra: Gabonetako ikuskizuna. Gabon-sariak. El borracho burlado* Auspoa bilduma, 48.
- Aspiatzu, Joakin, 1923, “Euskera zafaren apurtxoak”, *Bigarren Euskalegunetako Itzaldiak Doneztebe-n : 1923-garren irailean ospatuak*. Gaubeka. Bermeo.
- Diaz Plaja, Guillermo, 1972, *Tesoro breve de las letras hispanicas*. Volumen VI, *Literatura vasca*. Madrid.
- Kaltzakorta, Xabier, 1999, “Sebastian Antonio de la Gandararen euskal lanak”, *Euskera* XLIV, 129-209.
- Kortazar, Jon, 1997, *Euskal literaturaren historia txikia. Ahozkoa eta klasikoa (XVI-XIX)*, Erein, Donostia.
- Lakarra, Joseba, 1982, “XVIII mendeko zenbait bilantziko berri” *ASJU*, 1982, 101-103.or.
- Lekuona, Juan Mari, 1983, *Ahozko euskal literatura*. Erein. Donostia.
- \_\_\_\_\_, 1985, *Kardaberaz bilduma 31*, Librería Técnica de Difusión ; Tolosa ; 1985
- Mitxelena, Luis, 1960, *Historia de la Literatura Vasca*, Minotauro. Madril.
- Munibe, Xabier Maria, 1991, *Gabon Sariak/El Borracho burlado* (Xabier Alzibarren edizioa), Eusko Legebiltzarra, Gasteiz.
- Otaegi, Lourdes (koord.), 2008a, “Errima bertsolaritzan”, in. *Literatura Terminoen Hiztegia*. Euskaltzaindia. Bilbo.
- Oyharçabal, Beñat, 2001, “Zenbait gogoeta euskarak letra hizkuntza gisa izan duen bilakaeraz (XVII-XVIII. mendeak)”. *Litterae Vasconicae*, n.º 8, 9-46. Labayru Ikastegia. Bilbao.
- Salaberri Muñoa, Patxi, 2002, *Iraupena eta lekukotasuna. Euskal literatura idatzia 1900 arte*. Elkar. Donostia.
- Telletxea Idigoras, Jose Ignacio. & Lekuona, M., 1966, “Gabon-kantak” de Guernica de 1764. Un documental del euskera vizcaino del siglo XVIII”. *Boletín de la Sociedad Vascongada de Amigos del País*. 157-171 or.

- Urkizu, Patri, 2000, "El teatro vasco entre la tradición y la modernidad: la década del 60", *Euskonews & Media*, 76. Zenbakia.
- \_\_\_\_\_, 2009, *Teatro Vasco. Historia, reseñas y entrevistas, antología bilingüe, catálogo e ilustraciones*. UNED. Madril.
- San Martín, Juan, 1975, «Gavon-sariac» gure ilustrazioaren sarrera, *Euskera*. Bilbo, XX, 455 or.
- Sarasola, Ibon, 1976, *Historia social de la literatura vasca*, Akal. Madril.
- Villasante, Luis, 1979, *Historia de la literatura vasca*, Aranzazu. Burgos.

## 5.2. Interneteko bibliografia

[www.lazarraga.com](http://www.lazarraga.com) (2011-XII-28)

Otaegi, Lourdes, 2008, *Terminoen Hiztegia*, Euskaltzaindia. Bilbo. 252-255.  
[http://www.euskaltzaindia.net/index.php?option=com\\_xslt&Itemid=474&lang=eu&layout=lth\\_list&search=1&view=frontpage](http://www.euskaltzaindia.net/index.php?option=com_xslt&Itemid=474&lang=eu&layout=lth_list&search=1&view=frontpage) (2011-XII-19)

## 6. Eranskina

Xabier Kaltzakortak (1999) *Euskera* aldizkarian argitaratutako ediziotik hartutakoak dira hemen emango ditugun Gandararen Gabon Kantak. Hala ere, hemen kronologikoki ordenatuta emango ditugu, han ez bezala. Bestalde, Sor Luisarenak Arestiren *Teatro Zaarra* (1965) lanetik hartu ditut. Hona hemen hauek denak:

## 6.1. Gandara

### Hirugarren dokumentua

GABON CANTA DEL AÑO DE 1757 QUE YO D.  
SEBASTIAN ANTONIO DE LA GANDARA PRO-  
TONOT. AP. PRESBITERO BENEFICIADO DE  
ESTA VILLA DE GUERNICA COMPUSE EN  
QUINCE SIGUIENTES VILLANCICOS, Y POR SU  
BORDONCILLO SE INTITULA EL FARARIRA.

1  
Gau aren manea  
ilunic  
bapere baguea  
dacust nic  
guerizac urrundu  
onec laster ditu.  
Fararira  
izar gustiac dabilz  
gira bira.

2  
Chist, Anguerua  
chist  
chairoric  
Ceu yastea on derist  
ceruric,  
Arzainxheoc gaña:  
ori dala maña  
Fararira  
Angueruac hirraldi  
gura dira.

3  
Yayo dan ezquero  
Belenen  
eguzquia bero,  
bada emen  
otzicaradunic  
quen bequit alboric (1)  
Fararira  
Erurzailleac bere  
otz estira.

4

Arbolac dacustaz  
chaloca;  
da mendiac eurraz  
saltoca,  
Baiabilcuz oñac  
diñoec lagunoc  
Fararira.  
Gaur gueure buruac  
loca dira.

5

Arin Belenera  
goazan:  
beguiz ecustera  
eguin dan gustizco  
bervea eguiaz betea  
Fararira.  
osteranzeco berbac  
utsac dira.

6

Enas ni yoango  
utsean,  
dodaz eroango  
aldean  
arrandun lau bildots,  
eguin daguien ots,  
Fararira  
Menmenean bi, ta  
bi lauxhe dira.

7

Eznea Perico,  
arzazu:  
gastaea, Joanico,  
es aztu.  
ardaoagaz, Anchon  
contu pichiruon.  
Fararira  
Presenteguin eah  
Zast hurira. (2)

8  
El gara Belenen  
ongura,  
sar zaite ceu lelen  
lecura,  
ceiñetan seiñchua  
datzan oyaldua.

Fararira  
Biozaquin deyogun  
chinchirira.

9  
Agur, sein maitea,  
ceugaz da baquea  
ceurorri  
etorri  
Angueruen ahoric  
enzuna dinot nic  
Fararira  
Bestec ecarri esteuzt  
belarrira.

10  
Biz ordu onean  
Birgina,  
ceure sabelean  
eguina  
ogui cerucoa  
yatorcu gozoa.  
Fararira  
Nic beguia beti dot  
yanarira.

11  
Pozic sagos aujaz  
orainche Zeure  
esposiagas,  
Josepe;  
Sein onen aurrean  
Angueru artean  
Fararira  
Batu gara guztio  
mirarira. (3)

12

Erregaluchuac  
dacargus  
eder chitozcoac  
aiutuz  
estatoz alharic  
escu charretaric  
Fararira  
Nai guenduzan obeac  
albalira.

13

Ain guichiagaiti  
parcatu  
ona gara sarri  
ciertu,  
cerbait gueiagogaz  
dogunaren eraz  
Fararira  
Nor eletorque ceuen  
gozaldira

14

Artu gozus ongui,  
Maria.  
Jaunac gueitu begui  
gracia:  
audozu ceurea  
andra onguilea  
Fararira  
Berac urteten deusu  
arpeguira.

15

Adio gustiay,  
adio  
ecer albaguinai  
balio:  
Euquico gozuez  
egun eta gauez  
Fararira  
Gustiz prest etorteco  
ceuen deira. (4)

**GABON CANTA GUERNICACOA, HURTE 1762.**

1  
Adanen huméac nequez,  
dempora lengoetan,  
buztarria cerabillen  
cüzen sorbaldaetan.  
Ázan vicitza, Garratza;  
da beragaz contu latza.

Euscarichua.

Gaur gagozan pozturic,  
nola nai.  
Hegira!  
baice bai,  
begira  
Lioia bildosturic.

2  
Angueru bacochoa doa  
iñoxco vicroen;  
campora cerren Belengo  
barrí ona daroen.  
Hurduri dabiltz venetan  
Anguerúac gaú onetan.

3  
Judaco Lioia, bere  
orro suz beteaquin,  
aguertuten zan gogorto  
guizaqui tristeaquin.  
Orain datza lo gozoan  
Virginearen altzoan. (1)

4  
Bildoschuá, izan zaite  
ondo zeú etorria:  
amá onác emon deutsu  
dozun azal gorria.  
Epeá eldu dinean,  
echico dozu curtzean.



5

Ceruác, zeu bazcatzeco  
señetan Tití hutsaz,  
bere bular gozatsuac  
amari bete deutzaz.  
Jesus, artzazu Titia:  
Zeürea dozu gustia.

6

Bayoatzuz beguixeoc  
gustozco negarretan:  
zeu basen samurric ezta  
emengo bazterretan:  
Beraro jausten dá intza;  
Eguiá eztiñot, Gaintza?

7

Or dagoala, derichat,  
cantau guraz Carpio:  
pozen pozac daucó alan.  
Eta nun dogu Pio?  
O'nec ez ece, ni bere  
ausa banas aleguere. (2)

8

Jayotzá onéc daducaz  
cerúac, eta lurra  
atseguinez zoraturic.  
Aú eztá, ez, guzurra.  
Ezpozu gura sinistu,  
eguingo deutsut nic chistu.

9

Jaungoicozco beguiacaz,  
cerucó Erreguina,  
ce laburra dan, bacutsu,  
gueüroen alheguina.  
Andra gustizco maitea,  
quen zeuc gueügañic coitea.

10

Zeüre seme bigun orri,  
ama maitegarria,  
asserratu cedaquion,  
hoi da gueüre larria.  
Zeu bitarteco bazara,  
segurú egongo gara.

## Lehen dokumentua

GUERNICACO GABON-CANTE, hurte 1764  
Mushil, da Vizcaitar baten artean.

Sarmen.

1... Auxhe ce gañea!  
2... Celambere dan.  
1... Nic yaquin miñea,  
asco da essan.  
2... Equin bada, Muxhila:  
nai etzaitut ixhila.  
1 Zeu lagun, niri habia  
... urtengo Canta gustia.  
2... Orrelan biz.  
1... Poz dot izan.  
2... Gaquiozan.  
1... Ni zeuc aldiz.  
Gustiac... Galanto, erechian,  
Orniduco da Cantea.  
Bacocharen aldi  
izango da eusquerea,  
dagoquien zorian.  
2... Aurrah maite,  
assi zaite.

### I

Mux... Judan bat huria  
da Belen.  
Ona etorria  
zan Virgen,  
assentetaco,  
cerren zalaco  
José yatorria  
Daviden.

Euscarichu.

Iñoh!  
Gustiz alai  
diño.  
Onec nun nai  
Ots eguin bear leuque...  
tantararai. (1)

## II

Vizc... Ostatu nayaz zen  
Maria.  
Alperric zan Belen  
andia.  
Etzan aurquitu  
noc an laquetu  
hari guela baten  
gracia.

## III

Mux... Ah gente gangarra  
Belengo!  
Gustiai zaldarra  
urtengo.  
Zuec ucatu  
Virgeni lecu?  
Zuentzat su garra  
hurrengo.

## IV

Vizc... Sartu zan abere  
echean,  
José zala bere  
aldean.  
Bertan Semea,  
Bacar berea,  
arguira zan gure  
Onean.

## V

Mux... Noc dau ez orretan  
mirari?  
Ceimbat zor guc izan  
Amari!  
Anche nic egon,  
mosu da emon  
oinchu politetan  
berari.

## VI

Vizc... Vici direanac  
lurretan,  
baita dagozanac  
goietan,  
Andra chucuna,  
biotz biguna,  
Zeuri esquer manac  
milletan.

## VII

Mux... Ago, Deabrua,  
asserre:  
Orainche burua  
yac erre.  
Aguinoc naico  
cerratu? Haico,  
emon zorroztua  
nic cerre. (2)

## VIII

Vizc... Virgina, ceuroarren  
besoac  
dira gozoaren  
gozoac.  
Euretan sarri  
Jaungoicoari  
zagoz eraguiten  
ohaoac.

## IX

Mux... Esan da nic, Virgen  
gustia,  
secula, ta amen,  
eztia  
dala berbera,  
bururicpera.  
Garbi diñot emen  
egua.

## X

Vizc... Jaungoicoa ceuxhec  
acia  
izango, ez bestec,  
Maria.  
Acitzallea,  
idebagea,  
dauco ugatz orrec  
guria.

## XI

Mux... Ay becatariac  
izan gu!  
Zeure bitarteac  
balidu.  
Gure jabea,  
gugaitic ea  
Zuc eguin sotilac  
erregu.

## XII

Vizc... Apaintzalleari  
osaiac,  
enda Baltzolari  
graciac.  
Eguin dau bihar,  
biraldu bear  
yacaz Muxhilari  
sariac.

## AMA MAITEGARRIARI, ZORTZICO

1

Cerren zarean ceurez  
ama onguiroa,  
Virgiña, ceugan daucat  
neuronen gogoa:  
icendatuagas ceu  
poza dot artuten,  
amudioz jatala  
bioza beteten.

2

Gustiori ederra  
orañen bagaric,  
zara, Jaunaren escuz  
sortu cineanic:  
eguiya gordetarren  
vicia emondá,  
artez eguin nai neuque  
Cu gañanz egada.

3

Sortuera Ceureac  
onezco barria  
mundu char oni eutsan  
ecarri, Maria:  
Jaungoicoaren seme  
bococh beticoa  
zala sabel ceurean  
araguitzecoa.

4

Ceure ideric inox  
izan estalaco,  
esta izango bere  
mundua daneco:  
orregaiti, Andrea,  
bacarra Zara Zu;  
enda gustioc alan  
autortuten dogu. (5)

5

Edocean becataric  
dau igueslecu  
Ceugan, escatuagas  
Ceuri amparua  
Estaquianan ondo  
ate au billatzen,  
bere burua berac  
deungaro dau galtzen.

6

Ceruco Erreguina,  
balia zaquiguzi  
erregututen auxe  
egongo gachazus:  
izan dedilla gueure  
arnasa azquena  
Jesus onenarequin  
ceurorren icena.

Cecellaren 3 Hurte 1768

## AMA MAITEGARRIARI BERE JAIOSAN

1

Jayo cinean,  
Zori onean,  
Ceruetaco lorea:  
Ceuxec isurten  
dozu Adanen  
humeenzat amoreana.

2

Ceure arguiac,  
gueure beguiac  
gutziz alegretan dituz:  
cerureanic  
ondo lastanic  
munduac artuten zaitus.

3

Dauco biotza,  
motzaren motza  
oneresten ezteuzanac (6)  
eguiya dala,  
ceugan davela  
atseden gosoa Jaunac.

4

Bera ceurezat,  
da ceu berenzat,  
esan seusquneti, Zara:  
bada Ceuleguez  
esta inor, ez,  
izango aren gogara.

5

Lurra ez ece,  
cerua bere  
Ceugaña dago jarquiric:  
Ceure jaiozan  
biac egozan,  
miraritu ta, ixilic.

6

Da Guztiala  
chit liberala  
Ceugaz, Maria, ciertu:  
ceuc gustiraco  
daucazolaco,  
gura dozunean, aguertu.

Cecellaren, 14 garrenean Urte 1768.  
Gandara. (7)

## 6.2. Sor Luisa

Lenengo argitaraldia: "Gavon-sariac edo aurtengo  
gavonetan Azcoytico Eleiza Nagusian cantatuco  
ciran Cavon cantac edo otsaldiak. Puer natus est



nobis, Venite adoremus. Azcoitia, 1762" (1). (1) Carmelo de Echegaray: "Bibliografía Euskara",  
"Euskal-Erria" errebista, XV.  
Bigarren argitaraldia: "Euskal-Erria" errebista, XX,  
1889.  
Irugarren argitaraldia: "Egan", 1956, 5-6.  
Laugarren argitaraldia: Auspoa Liburutegia, 48, 1965.

Komediaren barruko kantak:

LENENGO OTSALDIA

*Tonadillea*

**Sekulako ikaraturik  
Nago ikusi dedanaz;  
Ez bait du iñork sinistuko  
Bakarrik nere esanaz.**

*Bada ni ere  
Neure ikusirik,  
Egon naiz eziñ  
Sinisturik.*

**Gure erriko sartzaieran  
Dagoan abel-etxe ura  
Aiñ dago argia ta ederra,  
Zer dirudi zerua.  
Baña au ez da ezer ere  
Beste gauzeen aldean.  
Ez da ainbeste mirari  
Ekusi iñoz lurrean.**

*Bada ni ere...*

**Aditu nai dituztenak  
Jar bitez nere aldean:  
Esango ditut diranak  
Segidillatxo auetan.**

Baña utzi bulla  
Alde batera;  
Txit, txit, ia noa  
Abiatzera.

*Segtdillak*

Aurtxo zoragarri bat,  
Or portalean,  
Otzak kil, kil, kil, datza  
Lasto gañean.

*Ai, aur ederra!*

*Ai, aur guria!*

*Ai, aur gozoa!*

*Ai, aur ezta!*

Otzak kil, kil, kil, datza.

Lasto gañean.

Belen guztian

Eztute iñun aurkitu

Ostaturikan.

*Ai, aur ederra!...*

Asto idi batzuek,  
Etziñik auspaz,  
Zerbait herotzen dute  
Beren arnasaz.

*Ai, aur ederra!...*

Errukiago

Dira abercak berak

Gizonak baño.

*Ai, aur ederra!...*

Txit emakume eder bat  
Alboan jarrita,  
Zoro biurturik dago  
Ari begira.

*Ai, aur ederra!...*

Bai, biak ere  
Ederrean alkarren  
Antza badebe.

*Ai, aur ederra!...*

Andre eder au aur onen  
Ama andre izanik,  
Jaio zanean bezela  
Dago, orregatik.

*Ai, aur ederra!...*

Zer miraria!

Ama izanik, dontzella

Bait da garbia.

*Ai, aur ederra!...*

Aur eder onen aita  
Ez da gizona;  
Da espiritu garbi bat,  
Da Jaungoikua.

*Ai, aur ederra!...*

Argatik bada,  
Mirari aifi andi au  
Gertatu bait da.

*Ai, aur ederra!...*

Maiz ekusi dezute  
Kristal garbian,  
Nola sartu ta erten  
Oi dan argia,  
*Ai, aur ederra!...*  
Ausirik gabe,  
Ta loirikan batere  
Utzirik gabe.  
*Ai, aur ederra!...*

Gisa artan Andre onen  
Sabel garbian  
Sartu ta erten izan da  
Jainkoaren itza,  
*Ai, aur ederra!...*  
Aren gisara  
Mantxa gabe ta osorik  
Gelditzen dala.  
*Ai, aur ederra!...*

Aguretxo bat ere  
An dago aurtxoaz,  
Eziñ dauka negarra  
Pozaren pozaz.  
*Ai, aur ederra!...*  
Iñoiz malkoak  
Oi dira farra baño  
Gozoagoak.  
*Ai, aur ederra!...*

Jaunak esleiturik  
Bere ordekotzat,  
Aurrak aita ez badu ere,  
Dauka artakotzat.  
*Ai, aur ederra!...*  
Zorionekoa  
Izatea alako aurraren  
Aita ordekoa.  
*Ai, aur ederra!...*

Beste gizakumerik  
Aurkitzen ez da,  
Aurtxo onen konpañia  
Eztitsu onetan.  
*Ai, aur ederra!...*  
Mundu zoroa!  
Ez du sekula jakiñ  
Zer dan gauza ona.  
*Ai, aur ederra!...*

Bañan ez zaio palta,  
Ez, konpañia,  
Bada berekiñ dauka  
Zeru guzia.  
*Ai, aur ederra!...*  
Argatik naski  
Dabil mundua igasi  
Toki artatik.  
*Ai, aur ederra!...*

Aingeruak kantatzen  
Diote aurrari:  
Gloria zeruetan  
Jaungoikoari,  
*Ai, aur ederra!...*  
Eta bakea  
Gizon on guzientzat  
Berriz lurrean.  
*Ai, aur ederra!...*

Nai dutenak etorri,  
Betoz laxterka,  
Musika zeruko au  
Aditutzera,  
*Ai, aur ederra!...*  
Ta aekif batara  
Gure borondate ona  
Erakustera.  
*Ai, aur ederra!...*

Goazen, ta here ofetan  
Umilki etziñik,  
Alabatuko degu  
Biotz guzitik.  
*Ai, aur ederra!...*  
Modu onetan  
Ez digu, ez, ukatuko,  
Deus ere ezertan.  
*Ai, aur ederra!...*

Eska zaiogun bada  
Lendabizian,  
Ez gaitzala, arren, utzi,  
Gere bizian.  
*Ai, aur ederra!...*  
Gurekin dela,  
Ez gera ezeren bildur,  
Naiz dena dela.  
*Ai, aur ederra!...*

Orain aur maite onekif  
Ongi bagera,  
Gero eramango gaitu,  
Beraz batera,  
*Ai, aur ederra!...*  
Bere Aitagana,  
Sekulako bizitza  
Ta gloriara.  
Ala biz.

## BIGARREN OTSALDIA

### *Aria*

*Karidadearen eta egiazko amorioaren auan*

Au egun zoratzekoa!  
Zer poz andia!  
Zer atsegiña!  
Ain da poz nere gogoa,  
Zein da ez dakit zer egiñ.

### *Errezitatua*

Jaungoiko andiaren  
Esku indartsuak sortutako guziak,  
Eguzki eder, illargi, ta izar argiak,  
Zeruak, lurra, ta itxaso zabalak,  
Atozte, atozte nigana, zeranak.  
Kanta ditzagun guzien artean (1)  
Jaungoikoaren gloriak gaurko gabeen.  
Mendi portitzak, aariak bezela, dantza:  
Munotxoak salto, bildotxoen gisara; (2)  
Ibar ta madura lau, baso ta txara,  
Atozte, atozte nigana, zeranak,  
Kanta dezagun guzion artean

(1) Psalm. 18.

(2) Psalm. 113.

Jaungoikoaren gloria, gaurko gabeen.  
Arbola orritsu berde, trebola fiñak,  
Larrosa, klabeiña eta jazmiñak,  
Ibai zabal, osiñez betetakoak,  
Erreka berritxutxo itz jarioak,  
Itz batean, zerua bere argiakñ,  
Lurra, itxasoaz ta ur guziakiñ;  
Ibaiak, arbolak, mendiak eta izarrak,  
Atozte, atozte nigana, zeranak,  
Kanta dezagun guzion artean  
Jaungoikoaren gloria, gaurko gabeen.

### *Ariatxoa*

Eguzki andia,  
Izar argia,  
Lastotan dautzan  
Aurtxo orrek  
Sortua zera,  
Ta orren mendera  
Bizi artean  
Zaude zuek.

Ur aserrea,  
Mendi eskerkea,  
Lastotan dautzan  
Aurtxo onek,  
Ain geldirikan  
Zuen tokian  
Leku batean  
Zauzka zuek.

Au ala izanik,  
Aur biurturik  
Gaurko gabean  
Dadukat nik,  
Gizon tristea,  
Penaz betea,  
Libratu dezan  
Pekatatik.

Nik ekarririk  
Gizon egifik,  
Nik gaur bear det  
Kantatu  
Bere etorrera  
Gizon artera;  
Eta ala zuek  
Lagundu.

#### IRUGARREN OTSALDIA

#### ARTZAI KANTA

##### *Adirakaia*

Guziak dakite nola aingeruak gaztigatu zieten Belen inguruko artzaiai munduaren Salbatzallea jaio zala estrabi batean (3).

Ebanjelioko pasarte onetatik ta beste toki askotatik, nun J. K. gureak bere burua artzaitzat izendatzen duen, artu izan da otsaldi edo kanta onen irudidea; zehanean asmatzen dan, Belen inguruko artzaia, jakinik Artzai berri bat eldu dala abel-etxera, alkar arturik diazela ongi-etorria ematera. Onetarako, Tersis ta Filis lagun guztietatik gazteenai, ta bozik onenak dituztenai, enkargatzen diete ongi-etorria guzien izenean ematea, zeintzuek au egiten dute kanta berri onetan; nun artzaiaren egokikilde edo *metaforaren* azpian estaltzen diran Jesu-Kristoren bizitza ta gure Fedeko misteriorik nagusienak.

---

(3) Luc. cap. 2.

*Artzai kornua*

Ola, goazen, artzaiak,  
Abel-etxera,  
Lagun berri bat  
Ezagutzera:  
Ta ongi-etorri on bat  
Ematekotzat,  
Guzien partez,  
Tersis, zuk ta Filisek  
Kanta kanta berri bat.

*Tersis ta Filisek, biak*

Baña kontu zuek ere laguntzeaz,  
Estribillo batez, guzien artean.

*Guziak*

Ordu onean.

*Tersis ta Filisek*

1/ Artzai zoragarria!  
Ona emen gera,  
Ongi-etorri on bat  
Zuri ematera:  
Ez da artzairik gelditu  
Inguru guzian,  
Diranak emen datoz,  
Bada, elkarren leian.

*Erantzuerak*

Erantzun bada, lagunak,  
Esan dezun bezela,  
Jakiñ dezan etortze onez  
Nola gu poztu geran:  
Ea bada, kanta laxter.

*Guziak*

Bai, bai, bai, bai, bai, bai, bai.

*Biak*

Ea bada, kanta laxter.

*Guziak*

Bai, bai, bai, bai, bai, bai, bai.

Ongi etorri zerala,  
Artzai pare gabea,  
Gurekiñ bearko dezu  
Beti sekularean.

- 2/ Artaldeak bakarrik,  
Txabolak zai gabe,  
Utzirik gatoz, bafia  
Ardurarik gabe:  
Piztietatik dala,  
Naiz lapurretatik,  
Zuk gordeko dituzu,  
Or zautzan lekutik.

*Erantzun, bada, lagunak...*

*T. ta F.*

- 3/ Etsaia alperrik dabil  
Leoia bezela,  
Inguruka, ustez zerbait  
Artuko duela. (4)  
Judako leoiaren (5)  
Begiratzun batek  
Utzi erazoko dizka  
Laxter bazter abek.

*Erantzun, bada, lagunak...*

*T. ta F.*

- 4/ Zu agertuarekiñ  
Egingo dute iges  
Gure etsai guztiak  
Emendik bildurrez:  
Euren damu gaistoan  
Uxatuko dira,  
Ta inpernuetarafiño  
Ondatuko dira.

*Erantzun, bada, lagunak...*

*T. ta F.*

- 5/ Artzaitzat zendozena  
Aintziña gengian,  
Lenagoko gizonai  
Maiz aditurikan:  
Ta aiñ maite artaldea  
Izango dezula,  
Non ta azkenik bizitza  
Kastauko zaitzula.

*Erantzun, bada, lagunak...*



T. ta F.

6/ Ardiak duten gaitza  
Kentzeko jakiñik,  
Ez dala artzaiaren  
Odola lakorik:  
Etorri ta egun asko  
Pasatu baño len  
Asiko zeradela  
Ugariro ixurten. (6)

*Erantzun, bada, lagunak...*

T. ta F.

7/ Amodio andi onek  
Parerikan ez du,  
Artzai ona zerala  
Erraz dezakezu: (7)  
Orrek ardiak zaitzen  
Ipiñiko zaitu,  
Ta orrek aien ondoren  
Ekarriko zaitu.

*Erantzun, bada, lagunak...*

T. ta F.

8/ Bost bider ekustean,  
Lagunak utzirik,  
Ardiren bat diala  
Bide okerretik,  
Galdu dediñ bildurrak  
Osta antxiturik,  
Biurtuko dezu atzera,  
Lepoan arturik. (8)

*Erantzun, bada, lagunak...*

T. ta F.

9/ Ogei ta amairu urte,  
Pena andiz beteak,  
Emango ditzu, abek  
Ondo gordetzeak;  
Ta aien kabuan gero  
Esker ematea  
Izango da gogorki  
Bizitza kentzea. (9)

*Erantzun, bada, lagunak...*

T. ta F.

- 10/ Orduan kunpli dediñ  
Aintziñako itza:  
Artzaia jo, ardiak  
Banatuko dira. (10)  
Baña iru egun barru  
Zu piztuko zera,  
Ta bilduko dituzu  
Elkargana ostera.

*Erantzun, bada, lagunak...*

T. ta F.

- 11/ Ala ere Aitagana  
Biurtu bearko dezu,  
Ta artalde maite ori  
Utzi naiko ez dezu;  
Baña zure amoreak  
Asmatuko bait du  
Nola, joanagatik,  
Aickiñ gelditu.

*Erantzun, bada, lagunak...*

T. ta F.

- 12/ Mirarietatikan (11)  
Mirari andiena  
Izango da artarako  
Ikusiko dena;  
Bada ogiaren antzaz  
Ostia batean  
Geldituko zerade,  
Zure artaldean. (12)

*Erantzun, bada, lagunak...*

T. ta F.

- 13/ Emen Zerutik iñoiz  
Alde egin bagerik,  
Egongo zera ardien  
Janari egiñik; (13)  
Orrela izango zera  
Beti aien aldean.  
Arik-eta munduak  
Dirauren artean. (14)

*Erantzun, bada, lagunak...*

---

(11) Sto. Tom. Serm.

(12) Eukaristia.

(13) Juan, 6.

(14) Mat. 28.

T. ta F.

- 14/ Asko ez balitz bezala  
Mirari aih andia,  
Ipiñiko ere dezu  
Ordeko Artzaia,  
Zure ardiak ongi  
Gobernatu ditzan, (15)  
Ta bide onetatik  
Erabili ditzan.

*Erantzun, bada, lagunak...*

T. ta F.

- 15/ Artzai onen mendean  
Arkitze ez diranak  
Izan bearko dute  
Galduak diranak;  
Ta ala, artzai maitea,  
Zurekiñ nai degu,  
Ta argan zure ordea  
Ezagutzen degu.

*Erantzun, bada, lagunak...*

T. ta F.

- 16/ Artzai onen mendean  
Bizi ta ilko gera,  
Joateko Zurekiñ  
Aitaren aldera;  
Arren lagun zakizgu  
Au ala kunplitzen,  
Gero goza zaitzagun  
Zeruetan. Amen. (16)

*Erantzun, bada, lagunak...*

\* \* \*

*Kopla jostalluak*

Ezagun du munduak  
Jesus jaio dena;  
Ain dago mudatua,  
Ez dirudi lena;  
Len guzia zan pena,  
Negar, naibageak,  
Ta oraiñ atsegiñ, gusto,  
Algara, parreak.

(16) Tersi ta Filise'ren bertso auek, lenengo irurak izan-ezik, Tolosa'ko (gaur Buenos Aires'en) Isaak Lopez-Mendizabal'en eskuz idatzitako libretatxo batean ere arkitzen dira. Libretatxo ori XVIII-garrengoa da, dudarik gabe, letrak salatzen duanez. Aldaketa auek ditu: 5/4: aditzerikan; 5/8: kostako zaitzula; 6/1: Ardiak duten sarnak; 14/4: ordeazko artzaia.

Gorróto, errierta,  
Auziak ta gerra,  
Gaitzak, gose, gezur ta  
Intentzio okerrak  
Juanik, ia ez dago  
Ezerren bildurrik,  
Ta ala dago muudua  
Zeru bat egiñik.

Abogadu, eskribau  
Eta merioak,  
Mediku, barbero ta  
Botikarioak,  
Ez dira bear; ta argatik  
Izango da sarri  
Hipokrates gaxoa  
Saguen janari.

Ezpatak, lantzak eta  
Beste arma guziak  
Erositzen dituzte  
Errementariak;  
Ta alperrikan ez dediñ  
Galdu burni ura,  
Enpletzera diaz  
Gure probetxura.

Atxur, burdiñara ta  
Golde biurturik,  
Nekazari langiñak  
Ongi giaturik,  
Emango digu lurrak  
Garia ta artoa,  
Gaztaña, sagardoa  
Ta ardoa naikoa.

Garia ta artoa  
Merke ta ugariro,  
Gaztaña ta sagarra  
Berriz urte-oro;  
Ta ardoak, galdurikan  
Lengo malizia,  
Ez gaitu moskortuko,  
Edan zia-zia.

Ez da onezkero esango  
Gezurrik batere,  
Egia esango dute  
Dendariak ere:  
Juan da emendik tranpa  
Ta pede gaistoa,  
Ia ur bage saltzen da  
Tabernan ardoa.

Basa arteko piztiak  
Malso-malso egiñik,  
Ez dute ya alkar jaten,  
Ta aiñ gitxi gizonik.  
Bat egiñik guziak  
Alkarren artean  
Bizi dira etsai gabe,  
Kontentuz, bakean.

Otsoa ta ardia  
Zelai zabalean  
Sarri ekusten dira  
Biak jolasean;  
Alberdanian txita  
Aizariarekiñ,  
Portugesak laztanga  
Gastelaubarekiñ.

Auxen bai dala egiaz  
Denbora urrezkoa,  
Ta ez len koplari zarrak  
Erausitakoa;  
Oraiñ aien amesak  
Egia sorturik,  
Ekusten ari gera  
Pozez zoraturik.

Baña kanta berri au  
Ceitxo luzatu da,  
Nere eztarri tristea  
Ia urratu da;  
Naiago det ixildu  
Katarratu baño;  
Agur, nere jendeak,  
Urrengo urteraño.